

Herritarren ahotsak

Transmisioa ikasgelan

Gida didaktikoa

ahotsak

GELAN

Gida didaktikoa
HERRITARTASUNERAKO
HEZKUNTZA

Badihardugu Elkartea
Otaola hiribidea, 1
20.600 Eibar (Gipuzkoa)
943 12 17 75



Edukia:

SARRERA	3
HELBURUAK	4
EDUKIAK	7
EDUKI MULTZOAK	7
GAI NAGUSIAK	9
NOIZ ETA NOLA ERABILI	14
PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK, FITXAZ FITXA	18
1. Gaia: Auzolanaren kultura. Bizikidetza	19
2. Gaia: Etorkinak eta integrazioa. Bizikidetza.....	22
3. Gaia: Elkar errespetatzea. Bizikidetza.	26
4. Gaia: Baserritarrak gutxietsita. Bizikidetza.	31
5. Gaia: Gerraren ondorioak. Bizikidetza.....	37
6. Gaia: Emakumearen egoera lehen. Genero berdintasuna.....	41
7. Gaia: Etxeko lanen banaketa. Genero berdintasuna.	44
8. Gaia: Emakumea lan munduan. Genero berdintasuna.	48
9. Gaia: Emakumeak eta janzkera. Genero berdintasuna.....	52
10. Gaia: Emakumeak eta aisia. Genero berdintasuna.	55
11. Gaia: Dena aprobetxatzen zen. Garapen iraunkorra.	58
12 Gaia: Gutxirekin pozik. Garapen iraunkorra.	62
ESPAZIOEN ANTOLAKETA	66
DENBORALIZAZIOA.....	67
BIBLIOGRAFIA	69

SARRERA:

Belaunaldien arteko transmisioaren etena arazo bilakatu da azken urteotan. Bizimodua aldatu egin da, eta harremanetarako moduak ere bai. Teknologia berriei lotutako gizartean bizi gara, eta hezkuntza ere modernizatu egin beharko da. Transmisioa etxeko sukaldetik ordenagailuko pantailara eramatea da gure asmoa. Beraz, Internet bidezko nabigazioa izango da bidea.

Badira gai batzuk lehentasunezkoak eta unibertsalak direnak. Betikoak eta betiko direnak. Balioak, errespetua, elkarbizitza, berdintasuna, garapen iraunkorra ... horiek etxean erakusten dira neurri handi batean; bai lehen eta bai orain. Hori bai, ikastetxeetan ere Herritartasunerako Hezkuntzak gero eta indar handiagoa du. Izan ere, ezinbestekoa da eskolak ikaslea eguneroko bizitzarako prestatzen laguntzea.

Gure proposamena www.ahotsak.eus proiektuan jasotako testigantzak ikastetxeetara bideratzea da. Gure ikasmaterialak Euskal Herriko Ahotsak proiektuak biltzen duen ahozko ondarean dauka oinarria. Nagusiki XX. mendeko lehen herenean jaiotako jendearen testigantzak dira ondare hori osatzen dutenak. XX. mende hasierako gizartearen eta bizimoduaren argazki zehatza daukagu, hitzez kontatua. Jakintza kolektiboa, azken batean. Eskolako liburuetan presentzia gutxi izaten duen gehiengo baten hitza, herri baten izatearen testigantza, azken batean.

Lehenaldia eta oraina lotuz, gure asmoa belaunaldien arteko hurbilketa egitea da, etxean edo ingurune hurbilean dutenen jakinduria (guraso, aitona-amona, edadeko bizilagun) gehiago baloratzea eta interesa piztea.

Ikasmaterial osagarri digitala da gurea, ikasgelan erabiltzeko eta irakasleari begira egina, eta ez inondik egokitua. Lizentzia librearekin banatzen da eta ikastetxe guztien esku dago <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> webgunean. Erabiltzeko erraza da, intuitiboa. Diseinu erakargarria du. Eta berdintasuna aintzat hartzen du, bai gaiak aukeratzean bai proposamen pedagogikoetan.



HELBURUAK:

Gure ikasmateriala DBHko irakasle eta ikasleei dago zuzendua, eta Herritartasunerako Hezkuntza irakasgaiarekin dago lotuta.

EIMA 2.0. deialdiaren baldintzei dagokienez, proiektu honek honako baldintzak betetzen ditu:

- Euskara hutsean sortutako ikasmateriala digitala da (4.1. artikulua).
- Creative Commons lizentziapean argitaratzen da (3.1. artikulua).
- Arlo hauetara zuzenduta dago (2. artikulua):
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako material osagarria da.
 - Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko material osagarria da.
 - Aniztasunari erantzuten dio.



Legezko Xedapenen testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumean jasotako helburuekin bat dator gure ikasmateriala, bai helburu orokorrekin eta baita irakasgaiko helburu zehatzekin ere.

Helburu orokorreki dagokienez, Oinarrizko Hezkuntzaren xedek betetzen ditu (urriaren 16ko 175/2007 Dekretua. EHA 2007/11/13) eta baita Oinarrizko hezkuntzaren helburu orokorrak ere (175/2007 Dekretua): arduraz bizitzen ikatea, ikasten eta pentsatzen ikatea, komunikatzen ikatea, elkarrekin bizitzen ikatea, ikaslearen giza alderdiak garatzen ikatea eta egiten eta ekiten ikatea. Helburu horietako azpiatal guztiak izan ditugu kontuan, eta bereziki hauek:

“Elkarrekin bizitzen ikatea” ataletik:

c) Ikasleak arduraz onartzea bere betebeharrak eta zer eskubide dituen jakitea eta horiek erabiltzea, gainerako pertsonak errespetatuz. Ez onartzea jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritziagatik eta bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatik egiten diren diskriminazioak. Tolerantzia izatea eta lankidetzaren eta elkartasun-jarrerak izatea pertsonetarako eta taldeetarako.

e) Sexuen arteko diferentziak eta pertsona guztien arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna balioestea eta errespetatzea, eta, horrekin batera, gizonak nahiz emakumeak diskriminatzea eragin dezaketen estereotipoak baztertzea.

“Ikaslearen giza alderdiak garatzen ikatea” ataletik:

a) Bizi-ibilbidea gainerako pertsonekin batera eraikitzen duen subjektu autonomotzat ikustea norberaren burua, eta pertsonak ekintzak zer irizpide eta baliori jarraituz egiten dituzten jakitea. Kritikoa eta arduratsua izatea norberaren buruarekin eta gainerako pertsonekin, norberaren garapen osoa, gizartearen garapena eta izadiarekiko oreka lortzeko.

Helburu didaktiko zehatzagoi begira, esan DBHn «*Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza*» irakasgaiak hainbat gaitasun lortzea duela helburu. Horietako asko gure ikasmaterialaren bidez lor daitezkeela uste dugu.

Honakoak lirateke:

1. Norberaren nortasuna onartzea, bai eta gainerako pertsonena ere, hari dagokion dimentsio pribatua eta guzti, banakakoen desberdintasunak eta pribatutasun-eremua errespetatzeko eta auto-estimua hobetzeko.

2. Ikasleak euskalduntzat hartzea bere burua kultura askotariko gizarte-esparru batean, eta euskal hizkuntza eta literatura nahiz ikaslearen berezko eta erreferentziazko hizkuntzak eta kulturak balioestea; hala, hainbat identitate aintzat hartuta, nor bere identitatea eraikitzea modu inklusiboan, eta erreferentziazko esparru komun bat eraikitzea.

3. Sentimenduak eta emozioak adieraztea, eta kultura arteko eta gizarte-komunikaziorako trebetasunak garatzea, gatazkak lantzean elkarrizketa eta bitartekotza erabiliz taldeko jardueretan.

4. Berdinen arteko jardueretan parte hartzea, eta errespetuan, lankidetzan eta indarkeria baztertzean oinarritutako talde-proiektuak antolatzea bizikidetzan eta parte-hartzea sustatzeko.

5. Egungo gizartearen aniztasuna, herrien eskubideak eta eskubide horien erabilpen askea aintzat hartzea eta horien berezko elementuak zein diren jakitea, aniztasunak bizikidetzan aberasten duela onartzeko.

6. Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzea, eta generoagatik, jatorriagatik, etniagatik, sinesmenengatik, norberaren eta gizarte desberdintasunengatik, orientazio afektiboagatik edo sexualagatik edo beste edozein arrazoiengatik dauden bidegabekeria-egoerak eta bereizkeria baztertzea.

7. Emakumeen eskubideak onartzea, sexuen arteko diferentziak eta gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide-berdintasuna balioestea, gizonen eta emakumeen arteko bereizkeria dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak baztertzea, eta berdintasun-jarrera bultzatzea, norberaren garapen integrala bermatzeko, bai eta genero desberdintasuna eta emakumezkoen aurkako indarkeria desagerraraziko dituen bizikidetzan bermatzeko ere.

8. Bizimodu demokratikoaren oinarriak errespetatzea, eta horretan parte hartzea ondare komunak irauteari eta hobetzeari eta animaliak errespetatzeari dagokienez herritarren eskubide eta betebeharrak betetz, norberaren ikastetxeko eta ingurune hurbileko gizarte eta natura-garapen iraunkorrari laguntzeko.

9. Giza Eskubideak zapaltzea, pobrezia eta desberdintasuna eragiten dituzten arazoak ezagutzea, bai eta horiek gatazka armatuekin duten erlazioa ere, eta bakea, askatasuna eta berdintasuna lortzeko asmoa duten ekintzak balioestea, parte-hartzea bultzatzeko mundu zuzen eta solidarioagoa lortzeko bitartekoa baita.

10. Herritartasun global bateko kide direla jakitea, eta norberarenak ez diren ohiturekiko eta bizimoduekiko errespetu kritikoa izatea eta, ondorioz, egoera kaskarrean bizi



diren pertonekin eta kolektiboekin era solidarioan jokatzeko, bai ingurune hurbilean, bai eta maila globalean ere.

11. Pentsamendu kritikoa eskuratzea eta beste pertsona batzuek eta informazio-iturriek emandako arrazoiak balioestea -bereziki informazio-iturri digitalek emandakoak-, eta norberaren irizpideak eta elkarrizketarako eta arrazoibiderako trebetasunak garatzea, norberaren iritziak defendatzeko eta besteen iritziak horiei gehitzeko.

12. Teoria etiko nagusiak ezagutu eta aztertzea, eta egungo munduko gatazka sozial eta moral nagusiak zein diren jakitea, komunikabideen eta beste erakunde sozial batzuen bitartez zabaltzen diren erduekiko pentsamendu kritikoa sortzeko.



EDUKIAK:

Herritartasunerako Hezkuntza irakasgairako zehaztutako edukiekin dator bat gure ikasmateriala.



EDUKI MULTZOAK:

1. eduki multzoa: eduki komunak

- Informazioa sailkatzea zenbait irizpidetan oinarrituta.
- Informazio-iturri askotarikoak erabiltzea: idatzizkoak, ahozkoak, ikus-entzunezkoak, digitalak.
- Informazioa iragazteko irizpideak edukitzea, bereziki Internetetik datorren informazioari dagokionez.
- Argudioak eta iritziak bereizteko gai izatea.
- Norberaren hitzaldiak arrazoibidean oinarrituta egitea (informazioa, interpretazioa, argudiatzea).
- Hitzaldiak egiterakoan besteen ikuspuntuak barne hartzea, horiekiko desadostasuna azalduz edo horiek guztiz edo neurri batean onartuz.
- Simulazioa, komunikazio-teknikak (inkestak, elkarrizketak, etab.), bitartekotza-teknikak eta bestelako teknikak erabiltzea gatazka-egoerei aurre egiteko.
- Elkarrizketa-trebetasunak erabiltzea, norberaren eta gainerakoen sentimenduak onartzea errazteko eta komunikazio eraginkor bat ezartzen laguntzeko.
- Talde-lanean proiektuak diseinatzen, antolatzen eta martxan jartzen laguntzea.
- Autoebaluazio-tekniken bidez, ikaskuntza autoerregulatzea.

2. eduki multzoa: bizikidetza

- Norberaren nortasuna, askatasuna eta erantzukizuna.
- Adimena, sentimenduak eta emozioak.
- Bizikidetzarako trebetasun eta jarrera sozialak. Gatazkei aurre egiterakoan indarkeria baztertzea. Aurreiritziak eta estereotipoak baztertzea. Elkarrizketa batean egon daitezkeen iritzi guztiak entzuteko ahalmena.
- Gatazka eta bitartekotza.



3. eduki multzoa: parte-hartzea

Bizikidetzeta eta parte-hartze demokratikoa.

- Demokrazia eta parte-hartze politiko eta soziala. Eskubide eta betebeharrak. Erakunde demokratikoak.
- Ondasun komunak, natura-ondarea eta zerbitzu publikoak identifikatzea, errespetatzea eta zaintzea. Giza harremanak gainerako animaliekin.

4. eduki multzoa: munda askotarikoa

- Aniztasuna, diferentzia, desberdintasuna.
- Gizarte- eta kultura-diferentziak egungo gizarteetan.
- Eskubide-berdintasuna eta aniztasuna. Herritarren aukera pertsonalak errespetatzea eta kritikoki balioestea.
- Aniztasuna: asimilazioa, aldi berean existitzea eta kulturartekotasuna. Gutxiengo etnikoak.
- Diskriminazioa: faktoreak eta zergatiak. Aurreiritzi sozialak, arrazistak, xenofoboak, sexistak eta homofoboak.
- Egungo gizarteetan aniztasuna balioestea. Jarrera etnozentrikoak, androzentrikoak, misoginoak, homofoboak eta abar baztertzea.

5. eduki multzoa: generoa eta rol sozialak

- Genero-indarkeria: tratu txar psikologikoak, fisikoak, kontrol-jokaerak.
- Etxeko lanak. Lanaren banaketa soziala eta sexuala.
- Rolak eta balioak zabaltzeko estrategia sozialak: familiak, eskolak, publizitatea, komunikabideak, etab.
- Sexu-generoaren sistemak sorrarazitako indarkeriazko jokaerak baztertzea.
- Bizitza sostengatzeko lanetan gizonezkoek eta emakumezkoek duten erantzukizun banatuarekiko jarrera positiboa eta aktiboa sortzea.

6. eduki multzoa: demokraziarako aurrerapausoa

- Herritartasun globalaren kontzeptua: politikoa, zibila eta soziala.
- Globalizazioa eta herritartasuna. Herritartasun ezkutua eta pobrezia: emakumezkoak, «paper-gabeak», langabetuak, etab.
- Herritar-eskubideak eta -betebeharrak.
- Garapen iraunkorra: demokraziaren eremu berria.
- Berdintasuna balioestea, benetako demokraziarako, garapenerako eta bakerako nahitaezko baldintza baita.
- Giza Eskubideen zapalketa-egoerak zurrizko ahalegin oro baztertzea.

Herritartasuneko Hezkuntza ikasgaiarekin lotutako **12 fitxa pedagogiko** prestatu ditugu DBHrako, betiere adinekoen testigantzak oinarri hartuta. **Proposamen horiek hiru gai nagusitan banatuta daude, eta atal bakoitzak bere fitxa didaktikoak ditu.**

GAI NAQUSIAK:

A. BIZIKIDETZA:

Bizikidetza adar asko dituen gaia da. Auzolanaren kulturak sustrai sakonak ditu euskal gizartean. Elkarri laguntzea ohikoa zen, eta baita etorkinei harrera ona egitea ere. Bizikidetza horretan adinekoek paper garrantzitsua zuten, errespetuzko trataera. Hori bai, Gerra Zibilak arrakalak sortu zituen bizikidetzan. Horretaz guztiaz hausnartzea oso garrantzitsua da: lehenago balio onak berreskuratzeko eta funtzionamendu txarrak ez errepikatzeko.



Gaiak:

- Auzolanaren kultura.
- Etorkinak eta integrazioa.
- Elkar errespetatzea.
- Baserritarrak gutxietsita.
- Gerraren ondorioak (1936ko gerra).

B. GENERO BERDINTASUNA:

Azken urteotan aurrerapauso dezente eman dira norabide horretan, baina berdintasuna lortzeko asko falta da, eta ikasleak gai horri buruz hausnartu, zapalkuntza egoerak identifikatu eta diskriminazio ororen kontrako jarrera garatzea oso da garrantzitsua. Horixe da helburu nagusia, generoaren alorrean izan den garapena ezagutaraztea eta gaur egungo errealitateaz jabetzeko tresnak ematea.



Gaiak:

- Emakumearen egoera lehen.
- Etxeko lanen banaketa.
- Emakumea lan munduan.
- Emakumea eta janzkera.
- Emakumea eta aisia.

C. GARAPEN IRAUNKORRA:

Zer da garapen iraunkorra? Teknologia berriek zer nolako eragina izan dute kontsumo ohituretan? Zaborren kudeaketa, birziklatzea, basoak zaintzea eta behar bezala ustiatzea, gutxierekin pozik bizitzea... Adinekoek dena aprobetxatzen zen garaia ezagutu zuten, eta naturarekiko errespetuan haziak dira gehienak. Badute zer irakatsia.

Gaiak:

- Dena aprobetxatzen zen.
- Gutxierekin pozik.



Ikus ditzagun fitxa didaktikoak banan-banan, bakoitzarekin zer landu daitekeen:

1. Auzolanaren kultura. (Bizikidetza)

- Elkarri laguntzeko ohitura Euskal Herrian
- Etxeetako ateak zabalik
- Elkarbizitzarako balioak eta auzolanaren kultura
- Gaur egungo egoera

2. Etorkinak eta integrazioa. (Bizikidetza)

- Bi norabidetan: etorkinak Euskal Herrira eta euskaldunak Ameriketara.
- Migrazioa eragiten duten faktoreetako batzuk.
- Bazterketa egoerak.
- Gaur egungo egoera, bi norabidetan: etorkinak Euskal Herrian eta gazteak kanpora lanera, krisiaren eraginez

3. Elkar errespetatzea. (Bizikidetza)

- Gurasoak eta adinekoak jakituria iturri gisa.
- Errespetua zieten nagusiei. Beldurra ere bai batzuek, zapalkuntza egoerak ere gertatzen baitziren.
- Gaur egungo ikuspegia: gizartea gazteena da. Adinekoak zokoratuta.
- Orduko eta oraingo jarrerari buruz ikuspegi kritikoa lantzea.

4. Baserritarrak gutxietsita. (Bizikidetza)

- Baserritarra izateagatik eta erdaraz ondo ez moldatzeagatik diskriminatua izatea
- Antzeko egoerak gaur egun (baserri munduko ikasleek)
- Diskriminazioaren faktoreak eta zergatiak
- Beste diskriminazio egoera batzuk identifikatzea (arrazarengatik, jatorriarengatik, generoarengatik etab).

5. Gerraren ondorioak. (Bizikidetza)

- Historia hurbila: Gerra Zibilaren ondorioetako batzuk, lehen pertsonan

- Gatazka eta zapalkuntza egoerak
- Gaur egun: badakigu non dauden gerran munduan? Sentipenak
- Komunikabideen eraginkortasuna gerra egoerak islatzeko

6. Emakumearen egoera lehen. (Genero berdintasuna)

- Genero berdintasunaren bilakaera eta garapena: ikuspegi historikoa, orokorra
- Matxismoaren jatorria eta oinarriak. Matxismoa elikatu duten faktoreak
- Gaur egungo egoera. Emakumeak berdintasunerako bidean emandako aurrerapausoak eta hutsuneak



7. Etxeko lanen banaketa. (Genero berdintasuna)

- Lan banaketa soziala eta sexuala
- Etxeko lanen banaketa aurreko belaunaldietan nolakoa izan den
- Egoeraren bilakaera
- Gaur egungo egoera: aurrerapausoak eta hutsuneak

8. Emakumea lan munduan. (Genero berdintasuna)

- Lanbideen banaketa soziala eta sexuala
- Lanbide asko galarazita zituen emakumeak
- Lan munduaren bilakaera
- Gaur egungo egoera: aurrerapenez eta hutsunez jabetzea

9. Emakumea eta janzkera. (Genero berdintasuna)

- Nola janzten ziren lehen emakumeak?
- Emakumeak galtzekin, noiztik?
- Janzkera arauak eta baldintzak atzo eta gaur
- Sexu-generoaren sistemak sorrarazitako indarkeriazko jokaerak. Minigona, probokazio iturri

10. Emakumea eta aisia. (Genero berdintasuna)

- Aisialdia desberdina zen gizonezkoentzat eta emakumeentzat
- Emakumeek ezin zuten tabernetan sartu
- Kirola. Emakumeak bizikletan ibiltzea gaizki ikusita zegoen
- Gaur egun aisialdian badago sexuaren araberako bereizketarik?

11. Dena aprobetxatzen zen. (Garapen iraunkorra)

- Birziklatzea: dena aprobetxatzen zen lehen, zabor gutxi sortu
- Basoak hobeto zaintzen zituzten. Ondasun komunak errespetatu eta zaintzea
- Garapen iraunkorra zer den

12. Gutxirekin pozik. (Garapen iraunkorra)

- Tecnologia berrien eragina bizimoduan
- Gaur egungo umeez ez ei dakite jolasten
- Lehenago bizimodua eta oraingoa parekatzen
- Kontsumoaren onurak eta desabantailak (gehiegizko kontsumoa)

NOIZ ETA NOLA ERABILI:

- **NOIZ erabili:**

Herritartasunerako Hezkuntza irakasgaia ematean erabiliko da ikasmaterial hau, DBHko lehen hiru zikloetan. Ez dugu zehaztuko bideo bakoitza DBHko zein mailatan erabili, kasuan kasu eta ikastetxez ikastetxe aldatu egingo baita hori. Irakasleak erabakiko du.



- **NOLA erabili:**

Irakasleak Interneten dauka ikasmateriala, lizentzia librearekin erabilgarri. <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> atarian aurkituko du, **Gaiak** atalean, hain zuzen. Euskal Herriko ikastetxe orok du erabiltzeko aukera.



Bilaketak egiteko **hiru modu** nagusi daude:

-Irakasgaiak. Hor klik eginda, irakasgaien zerrenda agertuko da, eta bat aukeratuko du irakasleak. “Herritartasunerako Hezkuntza” aukeratuz gero, irakasgai horrekin lotutako fitxa denak agertuko zaizkio: hamabi fitxa.

Fitxak

Mailak

DBH (12)

Gaiak

Genero berdintasuna (6)

Gerra (1)

Ohiturak (2)

Ekonomia (1)

Integrazioa (1)

Ingurumena (1)

Ikasgaiak

Herritartasunerako Hezkuntza (12)


Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia (1)

Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezaguera (1)


Projektua

Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan (12)


GARBITU FILTROAK




Auzolanaren kultura




Baserritarrak gutxietsita




Dena aprobetxatzen zen




Elkar errespetatzea




Emakumea lan munduan




Emakumeak eta aisia



Emakumeak eta janzkera




Emakumeen egoera lehen



Etorkinak eta integrazioa

-Gaiak. Atal horretan klik eginda, gaien zerrenda agertuko da, eta bat aukeratuko du irakasleak. “Genero-berdintasuna” aukeratuz gero, adibidez, gai horrekin lotutako fitxak agertuko zaizkio: bost fitxa.

 **-Mailak.** Etapa bakoitzean zer fitxa dauden ikusteko aukera ere izango du irakasleak. Adibidez, DBHrako zer fitxa didaktiko dauden.

Webgunean eginiko bilaketa ororen emaitza ikus-entzunezko bat izango da beti. Eta hantxe izango du irakasleak beharrezko informazio dena: bideoa, laburpena, proposamen didaktikoa, informazio osagarria ... Bideoa eta proposamenak ikusita, irakasleak erabakiko du nola erabili: proposatzen diren jarduerak bere egin, beste batzuk prestatu edo zer lanketa egin nahi duen eta zenbat denbora eskaini gai horri. Unean uneko egoerari, mailari eta ikasle taldeari egokituta hartuko ditu erabakiak, ikasleekin adostasunak bilatuta.



Nahi izanez gero, irakasleek zein ikasleek ikus-entzunezkoak euren ordenagailuetara jaisteko aukera dute. Gainera, ikus-entzunezkoek transkripzioa daukatenez, testua modu errazean lortzeko aukera dago, inprimatu eta ikasleei emateko moduan.

Irakasleek eta ikasleek materialari buruzko iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera dute webgunean bertan uneoro. Ikasmateriala erabilita sortutako ekoizpenak partekatzeak aukera ere bai. Hala, aldaketak egiten eta materiala hobetzen joango gara etengabe. Interaktiboa izango da.

PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK: planteamendu didaktikoa

Fitxa pedagogikoen oinarria testigantzez osatutako hamabi bideo dira. Eta bideoak **“Proposamen pedagogikoa”** izeneko atala du beti. Atal nagusia hori da, eta bertan bideoarekin lotutako jarduera-ereduak proposatzen dira.

Bestalde, fitxa pedagogikoan informazio gehiago ere izan daiteke (irakasleentzat egokia eta baliagarria izango dela ikusiz gero jartzen duguna): testua, informazio osagarria, lotura interesgarriak...

Ikus ditzagun zehaztasun gehiagoz fitxako atalak:

A- “Proposamen pedagogikoa” atala:

Proposamen pedagogiko guztietan, lehenengo eta behin hauxe jartzen dugu: proposamen horrekin ikasleengan zein jarrera sustatzea dugun helburu. Adib. [Dena aprobetxatzen zen](#) fitxan hauek datoz:

- *Garapen iraunkorraren aldeko joera*
- *Ondasun komunak errespetatu eta zaintzeko ohitura*
- *Aniztasuna aintzat hartzeko eta era positiboan baloratzeko gogoa*
- *Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea*

- *Arbasoen bizimodua eta historia hurbila ezagutzeko interesa*

Jarduera-proposamenak bideoarekin lotuta daude, eta **hiru alditan** banatuta. Aldi bakoitzerako jarduera batzuk proposatzen ditugu:

1. Bideoa ikusi aurretik:

- Iraganera begira jarri.
- Aurre-ezagutzak aktibatu.
- Erreferentziak eman.
- Iritziak jaso (galderak, jolasak, dinamikak).
- Hipotesiak egin.

2. Bideoa ikusi bitartean egitekoak:

- Aurre-ezagutzak konparatu.
- Ulermenarekin lotutako zalantzak argitu eta hiztegia landu.

3. Bideoa ikusi ondoren egitekoak:

- Ulermena ziurtatu.
- Iragana eta oraina konparatu (galderak, jolasak, dinamikak).
- Gaur egungo egoerari begiratu. Hausnarketa eragin.
- Azken ekoizpena: hainbat ekoizpen proposatzen ditugu aukeran. Bederatzi azpi-ataletan sailkatu ditugu ekoizpen proposamenak:

“Testigantza bila”. Ahotsak.eus webgunean testigantza gehiago bilatzea, adibidez herrikoak, gai horri buruz gehiago jakiteko eta gertuago sentitzeko.

“Zu zeu elkarriketatzaile”. Ikasleek elkarriketak egitea, adinekoei batik bat, etxeko eta gertuko egoera ezagutzeko. Bideoz grabatu, eta ondoren hainbat modutara aurkez daiteke, ikastetxean zein herrian zabaltzeko.

“Gaur egunera begira”. Gaur egungo egoerari begiratzea, atzokoa eta gaurkoa alderatu ahal izateko.

“Historia egiten”. Ikerketa eginez, historiara begiratu, eta gai horrek izan duen garapena ezagutzeko aukera izateko.

“Mundu zabalean”. Mundura begira jartzea, beste toki batzuetan zer gertatzen den jakiteko eta gaia bere osotasunean ulertzeko.

“Eman iritzia”. Gai horri buruz hausnartu, eta nork bere iritzia eraikitzeko, besteak beste iruzkin kritikoak eta iritzi artikulak eginez.

“Ika-mika”. Gai horri buruz hausnartu, eta nor bere iritzia defendatzeko

argudioak izateaz gainera, gainerakoen iritzia ulertu eta errespetatzeko, eztabaida formalen bidez batez ere.

“Bestearen azalean”. Besteen azalean jarri, eta egoerak asmatzea, rol-jokoen bidez enpatia lantzeko.

“Jolastex”. Jolasa erabiliko da, eskulanak batez ere, jolastuz ikasteko.

- Ekoizpena burutu eta partekatu. Azken ekoizpenean ahozkotasuna lantzea da gure erronka. Ahozkoari ematea garrantzia. Horrenbestez, ahozko jardueraren bat egingo dute ikasleek, gelakideei haien lanaren emaitza ezagutarazteko (azalpena, antzezlan, eztabaida, ahoz gora irakurtzea...). Jarduerak laburrak izango dira eta grabatu egingo dira, bideoz (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoak jabetzeko eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea.
- Grabazioak ikusi eta ebaluatu.

Ebaluazio-irizpideak. Fitxa guztietan jarri ditugu, irakasleak ikasleak ebaluatzeko eta ikasleen autoebaluaziorako irizpideak. Grabazioak ikusi ondoren egin daiteke ebaluazioa. Hona hemen adibide bat, [“Emakumeak eta janzkera”](#) bideoarekin lotutakoa:

- I. Ikasleen autoebaluazioa.** Ikasle bakoitzak zertan ikasi duen, zer ikasi duen eta talde gisa zer ikasi duen zehaztu beharko du. Ikasleek euren autoebaluazioa egiteko, egin ditzakegun galderak:

Edukiari buruz

- Ea gaiak interesa piztu dion.
- Ea gaiari buruz ikasi izanaren sententzia duen: gutxi-zerbait-dezente-asko.

Ikaste-prozesuari buruz

- Ea bideoa eta adinekoen testigantzak baliagarriak gertatu zaizkion.
- Ea ikaste-prozesua gustukoa eta eraginkorra izan den berarentzat.
- Ea informazioa bilatzeko arazorik izan duen edo erraza gertatu zaion.
- Ea guztira informazio berri asko jaso duen eta hausnartzeko balio izan dion.

Bere komunikaziorako gaitasunei buruz

- Ea iritzia lasaitasunez emateko aukera izan duen ala zailtasunak izan dituen.
- Ea ahozko ekoizpenean lasai sentitu den eta nahi zuena azaltzeko gai izan den.

- Ea pozik dagoen ekoitzitako lanarekin.

Talde-lanari buruz

- Ea talde-lanean eroso sentitu den eta aberasgarria gertatu zaion.
- Ea balioesten duen talde-dinamika ala arazoren bat izan duen.

II. Irakaslearen ebaluazioa. Irakasleak ikasleak ebaluatzeko, kontuan hartu ditzakeen irizpideetako batzuk:

- Ea adinekoen testigantzen garrantziaz jabetu den eta interesa erakutsi duen.
- Ea lehenaldia eta orainaldia lotzeko eta bere ikuspegia aberasteko gogoia eta gaitasuna izan dituen.
- Ea enpatiarik erakutsi duen bideoa emakumeekin.
- Ea baztertzen dituen gizonezkoen eta emakumezkoen arteko bereizkeria dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak.
- Ea garbi gaitzesten dituen emakumezkoek pairatu dituzten eta pairatzen dituzten indarkeria-egoerak.
- Ea eskubide-zapalketak eragiten dituzten arazoak adierazten dituen.
- Ea azaltzen duen elementu kulturalen (estereotipoak, rolak, etab.) eta emakumezkoen bereizkeriaren arteko erlazioa.
- Ea ikerketan informazioa lortzeko gaitasuna erakutsi duen, iturriak bilatzeko orduan.
- Ea informazio hori bere gogoetak eta ikuspuntua egituratzeko edo eraldatzeko erabili duen.
- Ea talde-lanean ondo moldatu den, berdinen arteko harremanean iradokizunak eginez eta ikaskideen iritziak errespetatuz.
- Ea bere iritziak eta hausnarketak partekatu dituen, horretarako txanda errespetatuta.
- Ea ahozko ekoizpean ondo moldatu den, komunikatzeko gai izan den.



B- Gainerako atalak:

Atal hauek ere badituzte fitxek:

- **Testua.** Grabazioaren edukia, idatziz, ulermena errazteko. Irakasleak testua inprima dezake, eta ikasleei banatu, bideoa hobeto ulertzeko lagungarria gertatuko zaiela iruditzen bazaio.
- **Testuingurua.** Gaian kokatzeko balio duen informazioa, jakingarriak: testuingurua, historia, azalpenak... Eta gaiarekin lotutako beste bideo batzuen loturak: Ahotsak.eus webgunekoak, *Ikasgelan* webgunekoak zein Interneteko bestelako material interesgarriari buruzko erreferentziak.

PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK, FITXAZ FITXA:

1. Gai: Auzolanaren kultura. Bizikidetzak.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/auzolanaren-kultura>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a colorful header. The main content area features a video player titled 'Auzolanaren kultura'. An orange arrow points to the video player. To the right of the video player, there is a metadata box with the following information:

Mailak:	DBH
Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Herritartasunerako Hezkuntza
Gaiak:	Ohiturak

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik:

- 1.** Girotze-jolasa (lore-jolasa): Ikasleei paper zuri batean lore bat egiteko eskatuko zaie. Lore handi bat egingo dute eta petaloak gelakide-kopuruaren arabekoak izango dira. Hau da, gelan 20 badira, 20 petaloko lorea egin beharko dute. Nork bere lorearen erdian bere izena jarri beharko du. Behin hori eginda, taldekide bakoitzak bere gelakidearen loreko petalo batean pertsona horrek gelari ze ekarpen on egiten dion idatzi beharko du (elkarlana eta talde-lanarekin lotura eginez). Azkenik, bakoitzak bere lorean nor bere buruaren alde on bat jarri beharko du. Amaieran, hausnarketarako tartea eskainiko da:

- *Nola sentitu zarete zuen taldekideek idatzi dízueta irakurritakoan?*
- *Zer da gehien gustatu zaízuena?*
- *Zer da gehien kostatu zaízuena? Zergatik uste duzue ízan daítekeela?*

2. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu talde handian. *Ba al dakizue zer den auzolana?* (norbaitek baldin badaki, ez dezala esan erantzuna)
3. Jarraian, hiruzpalauko taldeetan jarriko dira ikasleak eta orri zuri bat banatuko zaie. Orduan, aurretik egindako galderaren erantzuna idatzi beharko dute orri zurian, baina ez edonola: orria haizemaile (abaniko) eran tolestu beharko dute, eta taldekide bakoitzak banan-banan auzolanari buruz zer dakien edo zer den uste duen jarri beharko du. Bakoitzak berea idatzi ostean, orria tolestu eta beste taldekide batek berdina egin beharko du (bestearena ikusi gabe), guztiek egin arte. Denek idazten dutenean orrian zerbait, orria albo batean utziko dute.

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. (Adib. “Herri-bideak” eta “[gari jotzea](#)” zer diren)

Bideoa ikusi ondoren

1. Galdera batzuk egingo dira ikasleak hausnarketara bideratzeko, talde handian:

- Zuen herrian egiten al da auzolana? Eta lehen?
- Zergatik uste duzue gaur egun gutxiago egiten dela edo ez dela batere egiten? Ba al dago oraíndik horren beharrik?

2. Bideoa ikusi aurretik idatzitakoari begirada bat emateko aukera eman. *Hasieran idatzi duzuen eta orain idatziko zenuketena berdina dira? Zer da orain zuentzat auzolana?* Aukera eman orrian idatzi duten informazioa osatzeko, taldeetan. Behin informazioa osatu ostean, ikasleek taldeka zer idatzi duten partekatu beharko dute gainerako taldeekin.
3. Jolas bat egin daiteke, auzolanari buruz ahalik eta informazio gehien jasotzeko, lau taldeetan. Talde bakoitzak bideoarekin lotutako bi galdera prestatu beharko ditu. Galderak bere alboko taldeari pasako dizkio, eta horrela etengabe talde guztien galderak erantzun arte. Talde bakoitzaren galderak erantzuteko bi minutu izango dituzte. Amaieran, bizpahiru minutu emango dira gelakideekin erantzunak osatzeko. Helburua ahalik eta informazio osatuena izatea da, guztien artean elkarlana eginez.
4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke, talde txikietan. Lau adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezeko beste ekoizpenen bat proposatu ere):
 - *"Testigantza bila"*. www.ahotsak.eus webgunean arakatu, eta testigantza esanguratsu gehiago bilatzea. Bideo pasarte bat aukeratu, eta kontatzen duenaren laburpena egin, zure hitzetan jarrita.
 - *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Herriko zaharren egoitzara (zaharren egoitza ez badago, adineko pertsonak kontaktatzen saiatu) joan auzolanari buruzko galderak egitera bizpahiru laguneko taldeetan. Helburua, herrian edo bailaran auzolana nola, noiz, zergatik... egiten zen, nork egiten zuen... jakitea izango da. Horretarako aurrez galderak gelan prestatu beharko dituzte. Gisa honetako galderak izan daitezke:

- Lehen egiten al zenuten auzolana?
- Baserrian ala kalean egiten zen auzolana? Zergatik?
- Kontatuko al diguzu nola egiten zenuten auzolana?


Behin nahi adina informazio eskuratutakoan (ahal dela bideoan grabatu, bideokamerarekin edo sakelako telefonoarekin; posible da gero ahotsak.eus era eramatea ere), hurrengo urratsa gelan aurkezpen baten bidez informazioa partekatzea izango da.

- *"Gaur egunera begira"*. Gaur egun "auzolan" hitza asko erabiltzen da, "elkarlan" hitzaren sinonimo gisa. Ikasleek gaur egungo auzolan-eredu edo ekimen bati buruzko informazioa bilatu beharko dute (adibidez, ibaia garbitzeko elkartzen den taldea).
- *"Historia egiten"*. Auzolanari buruzko ikerketa txiki bat egitea. (Adibideak: auzolanari buruzko [ikerketa honetako](#) puntu esanguratsuenak laburbildu eta auzolanari buruzko antzinako argazkiak aurkitu...). Lortutako informazioa eta argazkiak kartoi mehe/panel batean jarri, gero ikaskideekin partekatzeko.

5. Ekoizpena partekatzea.

2. Gaia: Etorkinak eta integrazioa. Bizikidetza.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/etorkinak-eta-integrazioa>



Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Giroa berotzeko jolasa. Bosnaka jarriko dira ikasleak, eta bakoitzak papertxo bat hartuko du, taldekideei erakutsi gabe (bost papertxo prestatuko ditugu talde bakoitzarentzat). Taldekideek hitza asmatu beharko dute, azalpenak entzunda eta keinuak ikusita. Azalpenak ematean, ezingo dituzte 'hitz debekatuak' esan. Adib. mundua (esan ezin direnak, debekatuak: mapa, herrialdeak, planeta). Gaiarekin lotutako bost hitzak hauek izan daitezke:

<i>Mundua</i>	<i>Maleta</i>	<i>Etorkina</i>	<i>Migrazioak</i>	<i>Lana</i>
<i>Mapa</i>	<i>Eraman</i>	<i>Atzerritarra</i>	<i>Joan</i>	<i>Lantegi</i>
<i>Herrialdeak</i>	<i>Karratua</i>	<i>Etorri</i>	<i>Etorri</i>	<i>Bulego</i>
<i>Planeta</i>	<i>Bete</i>	<i>Herrialde</i>	<i>Mugita</i>	<i>Ikasi</i>

2. 'Etorkinak' esanda zer datorkien burura: Nongoak dira? Zertara etorri dira? Zer da integrazioa? Erraza da? Zein arazo sor daitezke?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu eta hausnarketa bideratu, era honetako galdera zabalak eginuz. (interesgarriena bideoa osotasunean ulertzea baita, xehetasunetan sartu gabe) Galderak, talde handian egingo dira, ahoz:

- *Zerekin gelditzen zarete bideo hau ikustean?*
- *Zerk piztu dizue arreta gehien? Zer da deigarriena zuentzat?*
- *Zuen ustez zer desberdintasun eta berdintasun daude Euskal Herritik kanpora joaten den baten eta Euskal Herrira datorren baten artean?*
- *Zuen burua kanpora bidean ikusiko bazenuke, zerk kezkatuko zintuzkete gehien? Ikasiko al zenukete beste hizkuntzaren bat?*

2. Gaur egungo egoeraren inguruan hitz egingo da ikasgelan, hausnarketa eginaraziz ikasleei lehenaz eta orainaz.

- *Ezagutzen al duzue horrelako kasurik? Familiakoren bat joan al zen erbestera lan bila edo dena delakora? Eta gaur egun zuen herrietara etorri al da kanpotik jendea? Zertara uste duzue joaten zirela eta zertara datozela? Eta zergatik?*
- *Euskaldunen kasuan kanpora joateko izan zituzten arrazoiak, ezagutzen dituzuenak, zerrendatu.*
- *Gaur egun asko dira kanpora joaten direnak, batez ere lana topatzeko asmoz. Ezagutzen duzue baten bat? Nola bizi du egoera hori? Zer desberdintasun bilatzen dituzue garai batean kanpora joaten ziren euskal herritarren eta oraingoan artean?*
- *Aurreiritzirik badago etorkinei buruz? Etorkin guztiak berdinak al dira ala jatorriaren arabera desberdin ikusten ditugu?*

3. Azken ekoizpena. Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikietan. Adibide batzuk (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezeko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile".* Bi-hiru ikasleko taldeetan elkarrizketa egitea proposatzen da, galderak aurrez gelan prestatuta. Elkarrizketatua EHra etorritako bat izan daiteke (duela gutxi etorria edo urte asko daramatzana) edo kanpoan bizi den norbait (EHTik kanpora joan dena: ikastera, lanera...). Posible da elkarrizketatua gelara eramatea edo bideo konferentzia egitea ere. Elkarrizketa bideoan egitea gomendatzen dugu, gero ikasgelan ikusi ahal izateko. Ikasleek aurkezpen txiki bat ere prestatuko dute (elkarrizketatuaren biografia laburra, adibidez; nondik ezagutzen duten, etab.). Elkarrizketa horien [transkripzioa](#) egiten ikasi, eta egitea aukera polita izan daiteke.

- *"Gaur egunera begira"*. Udaletxean galdetu zein estatutatik etorritakoak diren herrian bizi direnak. Munduko mapan jarri, hizkuntzak aipatu daitezke... eta amaieran aurkezpen txiki bat prestatu.
- *"Bestearen azalean"*. Zer aurreiritzi daude etorkinei buruz? Antzezlan txiki bat (*esketxa*) prestatu lau-bost ikasteko taldeetan, aurreiritziekin lotutako egoera bat asmatuta, pentsarazteko bidea ematen duena (adibidez, atzerritarrak bertakoei lana kentzera datozela). Behin antzeztu ondoren, gainerako taldeek proposatuko dute egoera hori nola aldatu (pertsonei jarrerak, egoera bera...). Talde guztiekin berdinean egingo da, eta beste saio bat hartuko da jokaera berri horiek antzezteko. Antzezteko unean, edukiaren egokitasunaz gainera, hauek ere kontuan izan daitezke: espazioaren erabilera, begirada ikusleei zuzentzea, pertsonaien gorputz-adierazpena, ahotsaren entonazioa... Aukera bat: ikasturte bukaeran antzezlan guztiak beste gela batzuetako ikasleentzako aurrean egitea.
- *"Eman iritzi"*. Iritzi-artikulu labur bat idaztea. Irakasleak iritzi-artikuluen ezaugarriak azalduko ditu eta ereduaren bat erakutsi. Bakarkako lana izango da. Ahoz gora irakurri beharko du, ikaskideen aurrean.
- *"Ika-mika"*. Eztabaida egingo da gelan, ikasleak taldeetan banatuta. Talde bakoitzean bi iritzi kontrajarriak izango dira, eta horiek defendatu beharko dituzte (adibidez, etorkinei erraztasun gehiago ematearen alde egongo dira batzuk, eta besteek, berriz, esango dute nahikoa baliabide ematen zaiela). Eztabaida formalen ezaugarriak azalduko ditu irakasleak, nola argudiatu, etab. Ikasleak argudioak prestatuko dituzte, eztabaida egin aurretik.

4. Ekoizpena partekatzea.

3. *Gaia*: Elkar errespetatzea. Bizikidetzeta.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/elkar-errespetatzea>

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Girotze-jolasa: Intxaur-jolasa. Hasteko ikasleak biribilean eserita talde handian jarriko dira. Bertan, bakoitzari intxaur ale bat banatuko zaio. Hasteko, intxaurra ukitu beharko dute, eta ondo begiratu; horretarako tartea utzi behar da. Horren helburua bakoitzak egokitutako intxaurra bere bihurtzea da. Behin hori eginda, nork bere izena idatzi beharko du intxaurrean. Jarraian, intxaur guztiak poltsa batean bilduko dira, eta ikasleek begiak estali beharko dituzte. Ondoren, ikasle bakoitzari intxaur bana banatuko zaio (berea ez dena), eta bata besteari intxaurreak pasatzen ibiliko dira, eskuz esku, ukimenaren bidez norberaren intxaurra zein den asmatu arte. Behin guztiek euren intxaurra identifikatu ostean, hausnarketarako tartea zabalduko da, era honetako galderak eginez:

- Zertaz konturatu zarete?
- Zer antzekotasun daukagu intxaurrarekin?

Intxaurrak bezalaxe, pertsona guztiak ere desberdinak garela ohartzea da jolasaren helburua. Bakoitzak ditugun ezaugarriak errespetatu behar ditugu, eta norbera den bezalakoxea izateagatik bakarra dela ulertu.

2. Aurre-ezagutzak aktibatu talde handian galderak eginez, bideoa ikusi aurretik:

- *Izenburua irakurrita, zer datorkizue burura?
Bideoan, zerí buruz hitz egingo dutela uste duzue?*
- *Zer da elkar errespetatzea? Zer dela eta batzuetan ez dugu elkar errespetatzen? Zerke eramaten gaitu horretara?*
- *Uste duzue garaí batean oráin baino errespetu gehiago izaten zela guraso, lagun eta gáinerako guztiekín?*

Bideoa ikusi bitartean

- 1.** Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
- 2.** Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu.

3. Bideoa ikusi bitartean, gisa honetako galderak ere egin daitezke ulertzen ari direla frogatzeko:

- *Zer esan nahi du Urnietako Mariak 'oain ezton anbientie' aipatzen duenean?*
- *Irungo Joxepak zergatik uste duzue esaten duela 'lehengo zaharrak oso inteligenteak' zirela?*

Bideoa ikusi ondoren

1. Galderak eta hausnarketa txiki bat bideoari buruz, talde handian egiteko:

- *Bideoan behin eta berriz aipatzen da gaur egungo umeez ez dutela edukaziorik edo errespeturik. Ados al zaudete horrekin? Zergatik?*
- *Nola bizi ziren zuen gurasoak? Zer egiten zuten euren egunerokotasunean? Eta aitona-amonek?*
- *Telebistak eragin positiboa ala negatiboa du haurren heziketan? Zergatik? Arrazoirik badauka Zumaiaiko Adorak?*
- *Garai batean orain baino errespetu gehiago zuten haurrek? Orokorra dela uste duzue? Zergatik?*

2. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikietan. Lau adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezeko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- *"Eman iritzia"*. Egin iritzi-artikulu bat gai hori abiapuntu hartuta. Iritzi-artikulua nola egiten den ez badakite ikasleek, aurrez azaldu egin beharko da gelan eta adibideak eman.
- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Aitona-amonei elkarrizketa egin. Aitona-amonak ez dituztenen kasuan, posible da gertuko adineko pertsonaren bati egitea. Lehengo bizimoduari eta errespetuari buruz galdetuko zaie. Elkarrizketa egiten den hizkuntzan egiten dela ere, bideoan jasoko da (bideokamerarekin edo eskuko telefonoarekin). Fitxa eta laburpena, berriz, euskaraz izango dira. Publisher programa erabiliz aurrez dezakete ikasleek. Horretarako, irakaslearen lana izango da aurrez *publisher* programa nola erabiltzen den azaltzea.
- *"Ika-mika"*. Etabaida egingo da gelan, ikasleak taldeetan banatuta. Lauko taldeak baldin badira, bi iritzi batekoak izango dira eta beste biak beste batekoak. (Adibidez, batzuek gaur egun umeez errespeturik ez dutela defendatuko dute, eta besteek, ordea, hori asko esatea dela esango dute, errespetu falta ez dela gaztetxoek kontua bakarrik). Ikasleei etabaiden ezaugarriak eta erabiltzen diren formulak edo testu antolatzaileak zein diren azaltzea komeni da (ikus [sekuentzia didaktiko hau](#), bereziki 84-85 orrialdeak).
- *"Jolasten"*. Binaka jarrita eta denak biribilean eserita, ikasleek beren kideari bost minutuz azaldu beharko diote zer gustatzen zaien, zer gorroto duten eta zer den errespetu falta bat berarentzat.... behin bata besteari entzun ostean, ikasle bakoitzak gelaren aurrean azaldu beharko du bere kideak berari esandakoa. Berari esandakoaz gain, kideak azaldutakoari zerbait gehitu nahi izanez gero, aipatu daiteke, betiere, errespetuzko ekarpenak eginez.
- *"Bestearen azalean"*. Lau-bost ikasleko taldeetan errespetuarekin lotutako egoera bat pentsatu beharko dute, jokaera txar bat eta ondoren antzeztu. Behin antzeztu ondoren, gainerako taldeek proposatuko dute egoera hori nola aldatu (pertsonaien jarrerak, egoera bera...) Talde guztiekin berdin egingo da eta beste saio bat hartuko da jokaera berri horiek antzezteko. Antzezteko unean,

edukiaren egokitasunaz gainera, hauek ere kontuan izan daitezke: espazioaren erabilera, begirada ikusleei zuzentzea, pertsonaien gorputz adierazpena, ahotsaren entonazioa...

3. Ekoizpena partekatzea.

4. *Gaia:* **Baserritarrak gutxietsita.** Bizikidetzeta.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/baserritarrak-gutxietsita>

31

The screenshot shows the website interface for 'ahotsak IKASGELAN'. The main navigation bar includes 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Gaiak', and 'Bideoteka'. The page title is 'Baserritarrak gutxietsita'. Below the title, there is a video player showing a woman, Isabel Izagirre Urretxu, with the text 'Isabel Izagirre Urretxu, 1936'. To the right of the video player, there is a metadata box with the following information:

Maiak:	DBH
Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Herritartasunerako Hezkuntza

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak, eta ikasleak hausnarketara eta iritzia ematera bultzatu. Ideia-jasa egingo da, galdera hauek abiapuntu hartuta:

- *Zer da diskriminazioa? Hitz horrek zer esan nahi du? Zein arrazoirengatik gerta daiteke?*

2. Ondoren, ikusiko dugun bideoaren izenburua esango diegu ikasleei. Eta burura etortzen zaizkien ideia guztiak botako dituzte (ez da inongo ideiarik baztertuko, eta gutxieneko gidaritza bat egongo da: hitza txandaka eman...).

- *Zer datorkizue burura "baserritarrak gutxietsita" entzunda?*
- *Baserrikoa denik bada hemen? Eta baserriarekin harremanik duenik? Zein dira baserrian bizitzearen abantailak? Eta desabantailak?*

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Arreta deitu dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. (Adib. "Itaurrean ibiltzearen" esanahia zein den)

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari etekin gutzia ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.

2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, lehenaldia eta orainaldia konparatuz, euren bizipenetan oinarrituz. Hona hemen egin daitezkeen galdera batzuk:

-Espero al zenuten ikusi duzuenena? Zerk deitu dizue arreta? Zer nabarmenduko zenukete?

-Noizko kontuak dira? Aspaldikoak? Etxean entzun duzue halakorik?

-Zergatik uste duzue gertatzen zela (edo dela) baserritarren eta kaletarren arteko bereizketa hori? Gaur egun bereizketarik egiten da?

-Lehengo baserritarren eta oraingoaren artean badago alderik? Zertan?

-Nola sentitu zarete bideoa ikusi duzuenean?

-Bereziki baserriarekin loturaren bat duzuenok: nola bizi duzue gai hau? Sentitu al zarete noizbait bideoko pertsona horien antzera?


-“Baserritarrak kalen eozer gauza egin daíke, kaletarrak baserrín ez”. Ados al zaudete?

3. Baserriko lanekin eta baserriko tresnekin zerrenda bana osatuko dugu, lau-pabost laguneko taldetan jarrita. Gero, hitz guztiak arbelean jartzen joan gaitzke. Dakienak emango ditu azalpenak, ez dakitenentzat (adibidez, karramarroa edo segapotoa zer diren, eta zertarako erabiltzen diren). Aukera bat: Interneten lan eta tresnei buruzko argazkiak bilatu (ikasle bakoitzak bat ala bi), eta guztion artean horma-irudi bat osatzea.

4. Jolasa. Diskriminazio positiboa zer den ulertarazteko jolasa. Hiruko sei talde osatuko ditugu (18 ikasle), eta gainerako ikasleak “behatzaileak” izango dira (gelan ikasle gutxi baldin badira, hiruko hiru osa daitezke). Hirukote bakoitzean, bat “ikaslea” izango da eta beste biak “laguntzaileak” (“1 laguntzailea” eta “2 laguntzailea”). Zein da jolasa?


- Biribil erdi bat osatuko dute taldeek, eta “laguntzaileak” begiak estaliko dizkiote “ikasleari”, zapi edo fular batekin.
- Lurrean 15 boligrafo, 15 borragoma eta 15 arropa-pintza jarriko dituzte “behatzaileak”, sakabanatuta, baina isiltasunean (toki zabal samarra behar da jolasa egiteko; gelatik kanpora ateratzea onena).
- **1. ariketa.** Ikasle guztiek ez dute baldintza beretan jokatu: guztiek izango dituzte begiak estalita, baina bi ikaslek eskuak aurrean lotuta izango dituzte. Eta beste bik eskuak zein hankak lotuta. “Laguntzaileei” sokak eta papertxo bana emango dizkie irakasleak, haien eginbeharrekin (“ikasleek” ez dute ezer jakin behar). “1. Laguntzaileak” eskuak/hankak lotuko dizkio bere “ikasleari”, haren papertxoan hori jartzen baldin badu. Eta agindu hau emango dio “ikasleari”: “Hor aurrean lurrean boligrafoak daude. Zuk sei boligrafo hartu behar dituzu. Aurrera!”. (Ez dira beti boligrafoak izango: bi ikaslek seina boligrafo hartu beharko dituzte, beste bik seina borragoma eta beste biek, berriz, seina pintza). Ez dio ezer gehiago esango. Laguntza eskatuta ere ez dio erantzungo. Ikasleek bost minutu izango dituzte objektuak lortzeko.

“1 laguntzailearen” papertxo adibidea (irakasleak soka bat emango dio honi):



- **2. ariketa.** “Ikasleek” begiak estalita (eta lotuta) jarraituko dute, eta aurreko ariketa bera egingo dute. Hori bai, laguntza gehiagorekin. “2. laguntzailearen” txanda da orain. Hasierako puntura eramango du bere ikaslea. “2. laguntzailearen” lana “ikaslea” gidatzea da. Behar dituen azalpen denak emango dizkio, eta bere ondoan egongo da, nora joan behar duen eta noiz makurtu behar duen esaten.

“2. Laguntzailearen” papertxo adibidea:



- Gelara itzulita, esperientzia komentatuko dugu. Nola sentitu dira “ikasleak” 1. ariketan? Nola “laguntzaileak”? Nola 2. ariketan? Zer ikusi dute “behatzaileak”? Ikasle guztiak baldintza beretan zeuden? Eta haien egitekoa berdina al zen? Nolakoak izan dira emaitzak? **3. ariketa** bat prestatu beharko dute, guztien artean. Helburua: ikasleen baldintzak kontuan izanda, antzeko emaitzak lortzea ahalbidetuko duen jolasa. Diskriminazio positiboa egitea, alegia (adibidez, hankak eta eskuak lotuta dituenak seiren ordeztu hiru objektu hartzea, edo eskuak lotuta dituenak sei objektu, baina denetik: borragoma, pintza zein boligrafo). Beraiek diseinatuko dute jolasa, eta jolastu egingo dute, hurrengo egunean. Hausnarketendako tartea emango da orduan ere.

- **5. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke. Lau adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordeztu beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- *“Ika-mika”*. Eztabaida egingo da gelan. Irakasleak eztabaida formalen ezaugarriak azalduko dizkie ikasleei, ezagutzen ez badituzte. Ikasle bati moderatzaile rola banatuko zaio (boluntarioa eskatu) eta gainerakoak sei-zortzi laguneko taldetan banatuko dira. Talde bakoitzean bi azpitalde egongo dira: batzuek kaletarrak izango dira eta besteak, aldiz, baserrikoak. Beraz, bi azpitalde horien artean debatea sortuko da: baserrian edo kalean bizitzearen alde onak eta txarrak, diskriminazioa... gisa horretako gaiak abiapuntu hartuta. Azpitalde bakoitzak argudioak prestatuko ditu, berea defendatzeko. Ondoren, talde bakoitzak eztabaida egingo du, gela osoaren aurrean, txandaka.
- *“Eman iritzia”*. Noiz dira zilegi estereotipoak? Komeditan, esaterako, exajerazioak ondo funtziona dezake. Gure buruari buruz barre egitea osasungarria izan daiteke... Ikusi [“Kutxidazu bidea, Ixabel” filma](#). Zein da baserritarren irudia film horretan? Nolakoak dira? Iraingarria iruditzen zaizue? Non dago muga, zuen ustez? [Iruzkin kritikoa](#) egin, banaka, eta gero ikaskideen aurrean irakurri, ahoz gora.
- *“Gaur egunera begira”*. Diskriminazio mota asko daude. Ikastetxe batzuetan *bulling* kasuak izaten dira... Zergatik uste duzue gertatzen dela hori? Nor izaten dira normalean diskriminatuak? Zer egin daiteke halakorik gerta ez dadin? Albisteetan *bulling* adibideak topatu, eta gelara ekarri (binaka egin daiteke): gertaera azaldu ondoren, eta iritzia eman, horren inguruan hausnartuko dute gelan. Amaieran, bizikidetzarako dekalogo bat sortu, guztien artean. Ikus [dekalogo](#) baten adibidea.
- *“Bestearen azalean”*. Lau-bost ikasleko taldetan diskriminazioarekin lotutako egoera bat (adib: genero-bereizketa, arrazakeria, *bulling*-a, behar bereziak dituztenen bazterketa) pentsatu beharko dute, jokaera txar bat, gidoitxoia prestatu, eta gero antzeztu. Behin antzeztu ondoren, gainerako taldeek egoera hori nola aldatu proposatuko dute (pertsonei jarrerak, egoera bera...). Talde guztiekin berdin egingo da, eta beste saio bat hartuko da antzerki-gidoiak moldatu eta jokaera berri horiek antzezteko. Antzezteko unean, edukiaz gainera, hauek ere kontuan izan daitezke: espazioaren erabilera, begirada ikusleei zuzentzea, pertsonaien gorputz adierazpena, ahotsaren entonazioa...

6. Ekoizpena partekatzea.

5. Gaiak: Gerraren ondorioak. Bizikidetzak.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/gerraren-ondorioak>

ahotsak IKASGELAN

Sarrera Honi buruz **Gaiak** Bideoteka

Gerraren ondorioak

Gerrek ez dute ondorio... monetan gerraren ondorioetako batzuk ezagutaraziko dira, lehen pertsonan. Gatazka eta zapalkuntza eg... ezagutzeko eta... usnartzeko bidea emango du, eta baita historia hurbila ezagutzekoa ere. Gaur egun gerran dauden herrialde... itatia eta interes... untzeko abiapuntua izan daiteke, eta gerraren kontrako jarrera aktiboa bultzatzeko modua ere bai. Gait... niakumeen ikuspegia ematen du bideoak, eta genero ikuspegia lantzeko ere balio du.

Gerraren ondorioak

Xalbadora Roldan Andoain, 1922

Mailak: DBH
 Proiektua: Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
 Ikasgalak: Herritartasunerako Hezkuntza
 Gaiak: Genero berdintasuna, Gerra

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Lehenaldira begira jarriko gara, orainaldia hobeto ulertzeko. Gerraren ondorioak aztertuko ditugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

*-Hemen gerrarik egon da? Noiz? Zer gertatu zen?
 -Zer gehiago dakizue horri buruz?*

2. Talde txikitan jarrita, ikasleek gerraren ondorioak zerrendatu beharko dituzte, eta ondoren arbelean idatzi.

-Zer uste duzue eragin zuela gerrak?

- Hemen gerrarik egon da? Noiz? Zer gertatu zen?
- Zer gehiago dakizue horri buruz?

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Arreta deitu dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak idatzi. (Adib: “Cervera kanoi-ontzia”, “frontea”, “errosarioa”...)

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari etekin guztia ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, talde(t)an:

- Ezaguna egin zaizue bideoan aipatu duten zerbait? Entzun al duzue halakorik aurretik?
- Nola sentitu zarete bideoa ikustean? Eragin al dizue sentipenen bat?
- Zer izan da zuentzat deigarriena? Zein ideia azpimarratuko zenukete bideotik?
- Konturatu zarete testigantza denak emakumeenak direla? Zuen ustez, gizonak kontatuko balute, berdina kontatuko zuten ala fronteko kontuak gehiago? Zein izan da emakumearen rola gerran?

3. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke. Adibide batzuk (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezeko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- *"Mundu zabalean"*. Jar gaitzen mundu zabalera begira: momentu honetan munduan zer tokitan daude gerran? Horri buruz hitz egin. Talde txikiak osatuta, talde bakoitzak gerran dagoen herrialde bat aukeratuko du, eta horri buruzko informazioa bilatu (non, noiztik, zergatik, ondorioak). Gelakideei azalduko diete gero (bikote bakoitzak aurkezpena nola egin erabakiko du: programaren bat erabili daiteke, kartoi meheak, argazkiak...). Aurkezpenak egin ahala, gerraguneak munduko mapa batean kokatzen joan daitezke.
- *"Testigantza bila"*. Ahotsak.eus webgunean arakatu eta gerra-garaian zure herrian gertatu zenarekin lotutako testigantza gehiago bilatu. Zer kontatzen dute? Laburpentxo bat egin eta ahoz kontatu gelan.
- *"Eman iritzia"*. Ikasleak binaka jarri. Fitxa honetako 'Testuingurua' atalean datozen bideoak bikoteen artean banatuko ditugu. Bikote bakoitzak bideo bat ikusi beharko du, eta horri buruzko lantxo bat egin, galdera hauei erantzunez:

-Zeri buruzkoa da? Zer kontatzen du?

-Gustatu zaizue ala ez? Zergatik?

-Zer da bideoeko esanguratsuena zuen ustez?

Bideo guztiak gelan ikusiko dira eta, ikusi aurretik (edo ondoren), bikote bakoitzak bere bideoa aurkeztuko du. Ondoren, ikasleen artean adierazpen askeko unea utziko da.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Etxeko edo inguruko adinekoak elkarrizketatu, eta haiek bizi izan dutena jaso. 1936ko gerraren inguruan galdetuko zaie. Galderak gelan prestatuko dituzte ikasleek, denek elkarrekin, eta gero binaka egin lana. Elkarrizketak laburrak izango dira eta bideoan grabatuko dira (bideokamera edo sakelakoa), gero gelakideei erakusteko. Bideoa erakutsi aurretik, pertsona horri buruzko aurkezpen txiki bat egingo dute (nor den, biografia laburra...).
- *"Historiari egiten"*. Herrian zer gertatu zen gerra garaian? Ba al dakigu zerbait? Noiz etorri ziren tropak? Zenbat hildako egon ziren? Ikerketa bat egin, binaka. Behin herriko datuak bilatu ondoren, horiek gelakideei azaldu. Aukera bat:

bildutako informazio guztiarekin (“Historia egiten” eta “Zu zeu elkarrizketatzaile” ataletakoa batu daiteke), hurrengo pausoa irratsaio bat egitea izan daiteke. Ikasleek lanak banatu, eta guztien artean gerrari buruzko irrati-gidoi bat prestatuko dute (narratzaileek zer esango duten, zer testigantza sartu une bakoitzean, zer musika eta soinu... Ikus irratsaio adibide bat: [Leitzako ikasleek egindakoa](#)). Ondoren, emaitza herriko irrati batera bidal daiteke. Bide batez ikus-entzunezkoa ere presta dezakegu, argazkiak gehituta, eta ikastetxean zein herrian zabaldu.

4. Ekoizpena partekatzea.



6. Gaiak: Emakumearen egoera lehen. Genero berdintasuna.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakumeen-egoera-lehen>

The screenshot shows the website interface with a colorful header. The main content area features a video player with a play button and a metadata table to its right. The table contains the following information:

Maiak:	DBH
Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Herritartasunerako Hezkuntza
Gaiak:	Genero berdintasuna

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak eta ikasleen aurre-ezagutzak aktibatu, gisa honetako galderak eginez gela osoarentzat:

-Zéin uste duzue zela emakumeen egoera garai batean?
-Zer uste duzue ikusiko dugula bideo honetan?

2. Galdera honen erantzuna papertxo batean idatzi beharko dute ikasleek, tolestu, eta zaku/poltsa/kaxa batean sartu:

-Zuentzat zer da bekatua?

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Arreta deitu dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu, ondoren argitzeko. (Adib: "erretorea", "kongregazioa", "sakristia"...)

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari etekin gutzia ateratzeko.

42

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, talde(t)an:

-Ezaguna egin zaizue bideoan aipatu duten zerbaít?
- Zein ideía azpimarratuko zenukete bideotik? Zer izan da zuentzat deigarriena?
-Aldatu al da egoera? Nolatan gertatu dira aldaketak, zuen ustez? Badago ezer aldatu beharrik gaur egun?

3. Aurretik idatzitako papertxoak zaku/poltsa/kaxatik atera, eta jartzen duena arbelean jartzen joan, bekatuekin zerrenda bat osatuz (ikasle bakoitzak bat atera dezake, eta idatzi ere bai). Bideoko emakumeek aipatutako bekatuak ere arbelean jarri, ondoren. Konparatu eta komentatu.
4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke. Adibide batzuk (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezkoko beste ekoizpenen bat proposatu ere):
 - *"Historia egiten"*. Herriko emakumeen historia ezagutuko dugu, denon artean. Taldetan banatu, eta ikasleak ikertzaile bihurtuko dira. Herriko emakume esanguratsuenei buruzko informazioa bilatu beharko dute (izan zirenak zein gaur egungoak). Binaka egin daiteke, eta bikote bakoitzak emakume bat aukeratu dezake, eta hari buruzko ahalik eta informazio gehien batu: argazkia, biografia...

Posible izanez gero, polita litzateke emakume horietako bat gelara eramatea, bere historia kontatzera. Argazkiak eta biografiak ikastetxeko korridoreetan jarri daitezke bukaeran.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Etxeko edo inguruko adineko emakumeei elkarrizketa egin, eta haiek bizi izan dutena jaso. Galderak gelan prestatuko dituzte, denek elkarrekin, eta gero binaka egin lana. Elkarrizketak laburrak izango dira eta bideoan grabatuko dira (bideokamera edo sakelakoa), gero gelakideei erakusteko. Aurkezpen txiki bana egingo dute bikote guztiek, eta elkarrizketatuari buruzko datuak ere emango dituzte (izena, nongoa den, zein harreman duten harekin etab). Grabazio guztiekin bideo muntaia egin dezakete, [Movie Maker](#) programarekin (nola erabili erakutsiko zaie), elkarlanean. Bideo hori ikastetxean eta herrian zabal daiteke.

- *"Mundu zabalean"*. Jar gaitezen mundu zabalera begira: zein da emakumearen egoera Afrikan, Asian eta Hego Ameriketean? Horri buruz hitz egin, eta desberdintasunez jabetu. Ondoren, matriarkatua zer den azalduko diegu. Beste herrialde batzuetako emakumeen egoera erakusten duten adibideak aurkitu, eta gelara ekarriko dituzte, talde txikiak osatuta. Denak ez dira emakume zapalduen adibideak izango. Komunitate matriarkalen ereduak ere bilatuko dituzte, eta haiei buruz ahalik eta informazio gehien jaso, argazkiak barne (adib. mosuo herria). Talde bakoitzak adibide bat ekarriko du gelara (aurkezpenak egiteko, programaren erabiltzea da aukera bat).

- *"Bestearen azalean"*. Ipuinak moldatu, genero-ikuspegia kontuan izanda (adibidez, *Errauskiñe*, *Txanogorritxo*, *Loti Ederra*, *Xagu pertxenta...*). Pertsonaien rola aldatu egingo dituzte ikasleek, eta gero ipuina berridatzi. Taldeka egingo da (4-5 lagun), eta ikasle bakoitzak pertsonaia bat antzez dezake. Gero ipuina gelakideei kontatu beharko diete. Ipuin kontaketa ezaugarriak ezagutzea komeni da, ereduak ematea ikasleei (adibidez, ["Elefantea eta erbia"](#), ["Txanogorritxo"](#) eta ["Galeperrak jan nahi ez zituen Errauskiñe"](#)). Aukera bat: ondoren beste gela batzuetara joatea ipuinak kontatzera.

- *“Eman iritzia”*. Emakumeekin lotutako abestiak bilatu eta iruzkin kritikoa egitea. Bi motatako abestiak topatuko dituzte: abesti matxistak eta emakumearen aldeko abestiak. Binaka egingo dute lana, eta bikote bakoitzak bi abesti aukeratuko ditu, ondoren horiek gelakideei erakusteko. Abestia jarriko dute gelan, baina aurretik izenburua, letra eta iruzkin kritikoa egingo dute. (Abesti matxisten adibideak: Baila para mí, Takata... Emakumeen aldekoen adibideak: Konplize ditut denak, Zutik emakumeak, Beldurrik gabeko emakumeak...). Gelan abesti denak entzun ostean, guztien artean bat aukeratu eta koreografia bat asma dezakete (aukera bat: estilo honetako lipdub bat egitea).
- *“Ika-mika”*. Atzoko eta gaurko emakumeari buruzko eztabaida egingo da gelan. Lehenengo lagun arteko eztabaida honen zati bat ikusiko dugu (01:18 minututik 02:16ra). Bideoaren edukiari erreparatu, eta iritzia partekatu ostean, formari erreparatuko diogu: *Errespetatzen al du batak bestearen hitza ala batak bestearena zapaltzen du? Hitanoa darabilte beraien artean: erregistro formala da ala lagun artekoa?* Bideoa ikusi ondoren, eztabaida formal bat egingo dute gelan, bi taldetan banatuta (batzuk alde eta besteak kontra, kopuru berean; nahiz eta benetan ez kontra egon, argudioak bilatu beharko dituzte). Eztabaida formal baten ezaugarriak zein diren azalduko zaie ikasleei (irakasleari baliagarria gerta dakioke sekuentzia hau, bereziki 84-85. orriak).
- *“Gaur egunera begira”*. Emakumearen aurkako tratu txarrak edo indarkeria egoerak oso ohikoak dira gaur egun gure gizartean. *Zergatik gertatzen dira zuen ustez?* Horri buruz hitz egin ostean, lau bat ikasleko taldetan bildu, eta tratu txarren kontrako kanpaina bat egin. Sormena eta irudimena erabiliz hainbat euskarritan egin ditzakete lanak: posterra, pegatina, txapa, iragarkia, ikus-entzunezkoa... (Hona hemen bi adibide: Hegan egin eta Beldur barik)

5. Ekoizpena partekatzea.

7. *Gaia*: **Etxeko lanen banaketa**. Genero berdintasuna.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/etxeko-lanen-banaketa>

ahotsak IKASGELAN

Sarrera Honi buruz **Gaiak** Bideoteka

Etxeko lanen banaketa

Etxeko lanen banaketa... aundietan nolakoa izan den ezagutuko dugu, eta bilaera ere bai. Etxe gehien-gehienetan emakumea egiten zuten eta seme-umeen kargu. Gaur egungo egoera aztertze eta hausnartzeko baliagarria.

Etxeko lanen banaketa

Maiak: DBH
Proiektua: Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak: Herritartasunerako Hezkuntza
Gaiak: Genero berdintasuna

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak eta ikasleen aurre-ezagutzak aktibatuz, gisa honetako galderak eginez talde handian:

-Zuek etxeko lanetan parte hartzen duzue? Zer egiten duzue etxean, zein etxeko lan?

-Zer uste duzue kontatuko dutela bideo honetan adinekoek?

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Arreta deitu dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. (Adib: "jorratu"-ren esanahia belar txarrak kentzea dela)

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari etekin guztia ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, talde(t)an:

-Ezaguna egín zaízue bideoan aipatu duten zerbaít?

-Zeín ideía azpimarratuko zenukete bideoetik? Zer izan da zuentzat deigarriena?

-Zuen etxean nola banatzen dítuzue lanak? Zergatik? Zerbaít aldatzeko beharra ikusten duzue ala uste duzue banaketa hori egokía dela?

-Aldatu al da egoera? Noíz eta nolatan gertatu ote zen aldaketa?

-Gaur egun "marítxu" gísa hartzen al da etxeke lanak egíten dítuen gízonezkoa? Nola ikusten duzue zuek?

-Zer dela eta uste duzue gehíenetan haurrak jolas-garaían neskek hartzen dutela etxekeandrea papera (haurrak zaíndu, janaría prestatu, sukalde txokoa...)? Aldatu al da? Aldatu ez bada, nola alda líteke? Non dago muína?

3. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke. Lau adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezeko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- *"Historia egiten"*. Etxeko lanekin lotutako telebistako iragarkietan emakumeak agertzen dira gízonezkoak baino gehiago, hori pixkanaka aldatzen joan den arren (adibidez, plater garbitzaile iragarki honetan). Adibide gehiago

topatu, garai batekoak (adibidez, 50-60ko hamarkadetakoak) eta oraingoak, eta gelara ekarri, gelakideekin partekatzeko. Binaka egin daiteke. Bilakaera erakusten duten adibideak izango dira, eta ikasleek, iragarkiak erakustearekin batera, azalpenak eta iritziak emango dituzte.

- *“Eman iritziak”*. Ikasleek euren etxeetan ikerketa lana egingo dute, bakarka, eta ondoren bertso sorta bat edo bakarrizketa bat idatzi horren inguruan, era metaforikoan. Hauxe izan daiteke gaia: *Lehenengo pertsonan, erratz bat bazina bezala idatzi*. Hasiera posible bat: *“Lehen, sukalde bazterrean egoten nintzen zain, etxeoandrea noiz etorriko nire bila”*. Etxeko lanen banaketa zer eta nola egiten dugun, nola egiten genuen eta nola egin daitekeen azter dezakete. Ondoren, kantatu edo ahoz gora irakurriko lukete literatur lana. Hauek izan daitezke galdera posible batzuk, ikerketa abian jartzeko:

Nola banatzen zituzten lanak zure aitona-amonek? Eta zure gurasoek, umetan? Eta zure etxean orain? Lanen banaketa orekatua da? Aldaketarik egon al da? Zerbait gehiago aldatzeko beharrik ikusten al duzu?

- *“Gaur egunera begira”*. Etxeko lanen gaiarekin lotura duten ikerketak bilatu beharko dira. Ikerketa asko daude emakume eta gizonen etxeko lan banaketarekin lotuta egindakoak, emaitzak ere askotarikoak. Adibidea: “Emakumeek gizonen denbora bikoitza ematen dute etxeko lanetan” Ikerketa egindakoan, laburpen bat egin eta datu esanguratsuenak ikaskideei aurkeztu. Grafikoak egin daitezke, bildutako datuekin.

- *“Zu zeu elkarrizketatzaile”*. Talde txikitik jarri eta inkesta bat egin beharko da etxeko lanen banaketaren inguruan, ea jendeak zer dioten jasotzeko. Talde bakoitzak ikastetxeko gela batean egin dezake inkesta. Gero, guztien emaitzak bildu, bateratu, ondorio eta batez besteko kalkuluak atera, eta gelaz gela joan

emaitzen berri ematen. Ondoren, pasabideetan jar daitezke, denok ikusteko moduan.

4. Ekoizpena partekatzea.

8. *Gaia:* **Emakumea lan munduan.** Genero berdintasuna.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakumea-lan-munduan>

48

The screenshot shows the website interface for 'ahotsak IKASGELAN'. The navigation menu includes 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Gaiak', and 'Bideoteka'. The main content area features a video player with the title 'Emakumea lan munduan'. A large orange arrow points to the video player. To the right of the video player is a table with the following information:

Maiak:	DBH
Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Herritartasunerako Heziketa
Gaiak:	Genero berdintasuna

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Lehenaldira begira jarriko gara, orainaldia hobeto ulertzeko. Lan mundua aztertuko dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

-Zuen amonek etxetik kanpo lanik egin al zuten? Ba al dakizue zerbait horri buruz?

-Emakumeek gizonak adina denbora pasatzen al zuten etxetik kanpo lanean?

2. Ikasleen amek zein lan egiten duten: zerrenda bat osatu beharko dute. Ikasleak banan-banan ogibideak arbelean idazten joan daitezke eta, gero, behin zerrenda osatuta, lan horietatik garai batean emakumeek zeintzuk egingo zituzten hautatuko dute.

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Arreta deitu dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. (Adib. “Kofia” eta “krixeda” bezalako hitzen esanahiak).

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari etekin guztia ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, talde(t)an:

-Espero zenuen ikusi duzuen? Zerk deitu dizue arreta? Zer nabarmenduko zenukete?

-Zer sentimendu sorrarazi dizue bideoak? Garai hartako emakumeek jasandakoak mindu al zaituzte? Zergatik?

-Etxean entzun al duzue horrelakorik?

-Zer aldatu da? Gaur egun badago neskaamerik (ikus testuinguruan)? Gaur egun ogibide guztietan al daude emakumeak? (aurre-ezagutzetan egindako jarduerarekin lotu daiteke eta arbelekua osatu)

3. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke. Lau adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezeko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- *"Gaur egunera begira."* Emakumea eta lan munduarekin lotutako egungo gertaerak aztertu, eta albiste bat edo gehiago aukeratu. Banaka edo binaka egin daiteke. (Adibideak: "Emakumeak pilotatzen" eta "Adidasentzat lanean"). Gertaeraren laburpena egingo dute, eta ahoz azaldu eta iritzia eman, gela osoaren aurrean. Aurkezpen txiki bat presta dezakete, adibidez prezi programarekin; erabiltzen ez badakite, ereduak erakutsiko zaizkie.
- *"Zu zeu elkarrizketatzaile."* Binaka egitea proposatzen da jarduera hau. Ondoko albistea "Etxeko lanak ez dira duinak, oraindik ere" irakurri ondoren, elkarrizketa bat egiteko galderak prestatu, etxeko lanetan dabilen pertsona batentzat. Elkarrizketa egindakoa, adibideko egitura erabilitako entregatukoa da (titulua, azpтитulua, galdera-erantzunak... eta argazkia), euskaraz. Aurkezpena, berriz, gela osoari ahoz goran irakurrita egin daiteke: batek elkarrizketatzailearena egin dezake eta besteak erantzun).

- *“Testigantza bila”*. Tradizioz gizonezkoena zen lanpostu bat lortu zuen lehen emakumea izan zen [Elisabeth Agirrezabal](#) bere herrian, Bergaran. Enpresa kudeatzailea. [Ahotsak.eus](#) webgunean edota beste iturri batzuetan arakatu, eta testigantza esanguratsu gehiago bilatu. Bideo pasarte bat edo albiste bat aukeratu, eta kontatzen duenaren laburpena egin, zure hitzetan jarrita.
- *“Historia egiten”*. Emakumeak lan munduan bizi izan dutenaren inguruko informazioa topatu, ikerketa lana eginez. Horretarako iturri desberdinak erabil ditzakete: Internet, liburuak, aldizkariak, inkestak, jendea elkarrizketatu... (adibidez, [“Eraldaketaren emakumeak”](#)). Ondoren, informazio jasotze hori gelaz gela aurkeztuko dute, guztien aurrean. Ideia ona litzateke ateratako ondorioekin horma-irudi bat prestatu, eta herriko kaleetan itsastea (eta beharrezkoa den kasuetan, azalpenak ematea).
- *“Historia egiten”*. Gerraosteko lege batek emakumea ezkontzean lana uztera behartzen zuen. Horri buruzko bideo hau ikusi: [“Gerraostea: emakumeak lantegitik etxera”](#). Ondoren, taldeka garai bateko lege gehiago topatu, emakumeen eskubideen kontrakoak zirenak (adibidez, boto eskubide eza, ikasketa jakin batzuk egiteko debekuak eta [zerbitzu soziala](#) egin beharra). Informazioa bildu ostean, gela osoaren aurrean azaldu beharko dira lege horiek.

4. Ekoizpena partekatzea.

9. Gaiak: Emakumeak eta janzkera. Genero berdintasuna.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakumeak-eta-janzkera>

The screenshot shows the website interface with a navigation bar containing 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Gaiak', and 'Bideoteka'. The main content area features a video player with the title 'Emakumeak eta janzkera' and a play button. Below the video is a table with the following information:

Maiak:	DBH
Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Herritartasunerako Hezkuntza
Gaiak:	Genero berdintasuna

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik:

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Lehenaldira begira jarriko gara, orainaldia hobeto ulertzeko. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Nola janzten ziren gure aiton-amonak?
- Ba al zegoen araurik janzteko orduan?
- Konplementuak. Buruko zapia eta txapela, Noiz?

2. Talde txikitan jarrita, Interneten antzinako argazki bat bilatuko dute ikasleek. Ezaugarri nagusiak ahoz deskribatuko dituzte, gainerako gelakideentzat: argazkikoak nola dauden jantzita.

3. Ezaugarriak arbelean (digitala edo tradizionala) jarri daitezke, sexuaren araberako bi zutabetan: arroparen kolorea, luzera, itxura, osagarriak...

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Arreta deitu dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu.



Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari etekin guztia ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, talde(t)an:

- Espero zenuten ikusi duzuenena? Zerk deitu dizue arreta?
Zer nabarmenduko zenukete?
- Debekuen jatorria. Zeinek jartzen zituen arauak?
Zergatik zela uste duzue?
- Noizko kontuak dira? Oso aspaldikoak? Etxean entzun
duzue horrelakorik?

3. Iragana eta oraina konparatuko ditugu, talde txikitan jarrita. Aurre-ezagutzak biltzerakoan egindako ariketa errepikatu daiteke, baina gaur egungo janzkerari erreparatuta. Ezaugarri nagusiak ahoz deskribatuko dituzte, gainerako gelakideentzat. Ezaugarriak arbelean (digitala edo tradizionala) jar daitezke, sexuaren araberako bi zutabetan: arroparen kolorea, luzera, itxura, osagarriak (*piercing*-ak barne)...
4. Gaur egunera begira jarriko gara ondoren. Talde handian iritziak, hausnarketak eta hipotesiak partekatuko ditugu. Ondoko galderak erabili daitezke akuilu moduan:

- Aldatu al da egoera? Noiz eta nolatan gertatu ote zen aldaketa?
- Gaingiditutako kontuak dira? Zuek ba al duzue mugarik janzteko orduan ala erabateko askatasuna duzue? Neskentzat eta mutilentzat berdina al da?
- Aurreiritzik edo kritikarik sumatzen al duzue gorputz atalak agerian uzten dituzten arropak erabiliz gero?

5. Azken ekoizpena: hainbat ekoizpen gara daitezke, talde txikietan. Lau adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezkoko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"* Etxekoei eta gertukoei galdetu, eta janzerarekin lotutako haien pasadizoak jaso. Pasadizo esanguratsuena(k) grabatu (poltsikoko telefonoarekin edo bideokamerarekin, ahotsa zein irudia). Elkarrizketatutako pertsonaren biografia labur bat osatu, eta jasotako testigantza laburpena egin idatziz, bideoa erakutsi aurretik azalpenak eman ahal izateko.
- *"Testigantza bila"* www.ahotsak.eus webgunean arakatu, eta testigantza esanguratsu gehiago bilatzea. Bideo pasarte bat aukeratu, eta kontatzen duenaren laburpena egin, zure hitzetan jarrita.
- *"Gaur egunera begira"* Janzerarekin lotutako egungo gertaerak aztertu, eta albiste bat aukeratu. (Adibideak: Emakumeen kontrako erasoak arropa gutxi eramatearen justifikatu dituzten kasuak. Hegazkinetako langileen uniformearen araudiari buruzko [albiste bat](#)). Gertaeraren lapurpena egin, gero ikaskideei azaltzeko.
- *"Historia egiten"* Janzeraren bilakaera historikoari buruzko ikerketa txiki bat egin. (Adibideak: Debekuak noiz eta nolatan hasi ziren malgutzen. Emakumezkoen galtzen modaren gorabeherak. Emakumeen janzkera arautzen zuten sasoi bateko dokumentuak). Lortutako informazioaren laburpena egin.

6. Ekoizpena partekatzea.

10. Gaiak: Emakumeak eta aisia. Genero berdintasuna.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakumeak-eta-aisia>

The screenshot shows the website interface with a colorful header. The main content area features a video player with the title 'Emakumeak eta aisia'. To the right of the video is a metadata table:

Maiak:	DBH
Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Herritarasunerako Hezkuntza
Gaiak:	Genero berdintasuna, Ohiturak

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Aurre-ezagutzak aktibatzeko galdera pare bat egin daitezke, talde handian, bideoaren izenburua erakutsita:

- *Bideo hau zer buruzkoa izango dela uste duzue?*
- *Zer egingo zuten garai batean emakumeek aisialdian?*

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu (adib. "[Kongregazioa](#)" zer den).

3. Ahozko ereduaren azterketa. Bideoa bigarren aldiz ikustea komeni da jarduera hau egiteko. Ahozko eredu ezberdinak aztertuko ditugu, arreta elementu batean edo batzuetan jarrita (keinuak, begiradak, ahotsaren tonua, isiluneak...). Irakasleak erabakiko du bereziki zertan nahi duen ikasleak arreta jartzea (egokia izan daiteke hitzezkoak ez diren elementuei erreparatzea, gero ondoren ikasleekin hori landu ahal izateko).

Bideoa ikusi ondoren

1. Gogoetarako bidea ematen duten galderak egin daitezke, talde handian:

-Espero al zenuten halakorik? Zerk harritu zaituzte gehien?

-Zer antzekotasun eta desberdintasun ikusten dituzue egungo gizartearen eta lehengoaren artean?

-Zer sentimendu sortu dizuete emakume horien pasadizoek?

-Aldatu al da egoera? Noiz eta nolatan gertatu ote ziren aldaketak?

-Gaınditutako kontuak dira? Zuek ba al duzue mugarik aisialdian neska edo mutil izateagatik? Neskentzat eta mutilentzat berdina al da?

2. Iragana eta oraina konparatuko ditugu, talde txikitan jarrita. Helburua, ikasleak emakumeen aisialdiak izan duen aldakuntzaz jabetzea izango da. Taldean azpimarratu dituzten ezaugarriak ahoz deskribatuko dituzte, gainerako gelakideentzat. Ezaugarriak aipatzerakoan, gela osoarenak arbelean biltzen joan daitezke, guztien artean zerranda luzea osatuz. Bi zutabe egin daitezke, eta alde batean lehengo ezaugarriak eta bestean oraingoak jarri.

3. **Azken ekoizpena:** hainbat ekoizpen gara daitezke, talde txikietan. Bost adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordeko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- *"Bestearen azalean"*. Rol-jokoa egitea proposatzen da, *bala-bala* hizkuntzaerabiliz (hitzen ordeztuz *bala-bala* esatean datza). Komunikazio egoerak antzeztuko dira talde txikitan. Talde txiki bakoitzak lehengo bizimoduari buruzko

egoera bat aukeratuko du, eta rola banatuko dituzte beraien artean. (Adibidez, neska bat taberna atarian mutil-lagunaren zain). Ariketa honen bidez konturatuko gara gai garela hitzak esan gabe ere nahi duguna adierazteko (keinuekin, ahotsaren tonuarekin...).

- *"Eman iritzia"*. Bertso sorta bat edo bakarrizketa labur bat prestatu, gaia honakoa izanik: *80 urteko amona bat zara eta zure iritzia eman behar duzu emakumeen aisialdiari buruz. Kontuan izan lehena eta oraina, biak bizi izan dituzula*. Behin prestatu ostean, gela osoaren aurrean aurkeztu beharko duzu zure lana, kantatuz edo ahoz gora irakurriz.

- *"Historia egiten"*. Ikasleek emakumeek aisialdian izan duten aldakuntzaren inguruko informazioa topatu beharko dute, ikerketa lana eginez. Horretarako hainbat iturri erabili ditzakete: Internet, liburuak, aldizkariak, inkestak... (adibidez, [Emakumeen aisia, ba ote?](#)). Ondoren, informazio jasotze hori gelan aurkeztuko dute, guztien aurrean.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Adinekoei elkarrizketa egin. Aitona-amonak ez dituztenen kasuan, posible da gertuko adineko pertsonaren bati egitea. Emakumea eta aisiari buruz galdetuko zaie. Elkarrizketa egiten den hizkuntzan egiten dela ere, bideoan graba daiteke (bideokamerarekin edo sakelako telefonoarekin; posible da gero [ahotsak.eus](#) era eramatea ere). Fitxa eta laburpena egingo dira, euskaraz.

- *"Gaur egunera begira"*. Ikasleak talde txikitan jarrita, ondorengo bideo hau ikus dezakete: [Zaletasunak eta gizarte rola](#). Ondoren, aurreko bideoa eta hau kontuan hartuta, taldeetan euren ustez aisialdian emakumeek izan dituzten aldakuntza positiboak zein izan diren esan beharko dute, eta aldatu ez den egoera bat. Idatziz jasotzea komeni da, gero beste taldeei azaltzeko.

- *"Gaur egunera begira"*. Jostailuak eta jolasak, berdina al dira neskenak eta mutilenak? [Pentsatu erosi aurretik](#) bideoa ikusi, eta gelan komentatu. Ondoren, begiratu zure ingurura, zure herrira. Arreta jarri publizitatean eta baita gertuko

umeengan ere. Argazkiak atera, propaganda-aldizkariak gelara ekarri... Aldaketa positiboak nabarmendu, genero bereizketarik gabeko jolas eta jostailuak. *Collagea* egin daiteke, jasotako argazkiekin eta marrazkiak eginez. Aukera bat: jarduera eredugarriak eta eredugarriak ez direnak konparatzea. Gabon inguruan egiteko jarduera izan daiteke, taldeka egitekoa.

4. Ekoizpena partekatzea.

58

11. *Gaia:* Dena aprobetxatzen zen. Garapen iraunkorra.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/dena-aprobetxatzen-zen>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a navigation menu (Sarrera, Honi buruz, Gaiak, Bideoteka). The main content area features a video player titled 'Dena aprobetxatzen zen' with a play button. To the right of the video is a metadata box with the following information:

Materia:	DBH
Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Herritartasunerako Hezkuntza, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezaguera
Gaiak:	Ingurumena
	★ ★ ★ ★ ★

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Lehenaldira begira jarriko gara, orainaldia hobeto ulertzeko. Natura zaintzearen garrantziaz arituko gara. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

-Gaur egun ingurumenarekin lotutako ze in arazo ditugu?
(Kutsadura, ozono geruza, zaborren kudeaketa...)

-Zuen ustez ba al zeuden lehen arazo horiek?

-Ze n aldaketa nabaritzen duzue lehendik orainera
ingurumenarekin lotuta?

-Zuen ustez inportantea al da baserritarren lana, ingurumenean
oreka bat egoteko? Zergatik?

59

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Arreta deitu dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak idatzi. (Adib. "galera", "konpostatu", "ahaldia", "simaurre", "malkarra", "gorotza", "estrazako papera", "sukalde ekonomikoa", "txerri-jana", "azienda", "otea", "larra", "lera" ...)

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari etekin guztia ateratzeko

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulermena ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritzia partekatu, talde(t)an:

-Espero zenuten ikusi duzuen? Zerk deitu ditzue arreta? Zer nabarmenduko zenukete?

-Zer iruditzen zaizue lehengo zaborren kudeaketa sistema? Ezagutzen al zenuten?

-Posible izango al zen gaur egun lehengo zabor bilketa? Zergatik?

-Baserrietako bizimoduak zein eragin izan du ingurumenean?

-Aldatu al da egoera? Noiz eta nolatan gertatu ote ziren aldaketak?

60

3. Iragana eta oraina konparatuko ditugu, talde txikitan jarrita. DINA 3ko 2 orri emango dizkiogu talde bakoitzari. Batean, lehengo paisaia bat marraztuko dute eta bestean, berriz, oraingoa; zaborrarekin lotuta biak ere. Horretarako, kontuan izan behar dute bideoan aipatzen dutena eta gelan bertan aipatutakoak. Behin marrazkiak egin ostean, gelako hormetan itsatsiko dira, eta alde nabarmenenak zeintzuk diren erabakiko dute guztien artean.

4. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikietan. Lau adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezkoko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- *"Gaur egunera begira."* Ikerketa bat egitea, binaka. Zenbat tona zabor sortzen da gaur egun? Gutako bakoitzak urtean zenbat zabor sortzen du? Eta gure herrian? Eta eskualdean? Bilaketa ahalik eta sakonena egin. Ondoren, kartel batzuk egingo dituzte datuekin, eta gelaz gela hitzaldiak eman (lehenengo, ikaskideen aurrean). Kartelak ikastetxeko pasabideetan itsas daitezke. Irakasleari hitzaldiekin lotutako [sekuentzia didaktiko hau](#) baliagarria gerta dakiok, ideiak hartzeko. Politika albo batera uzten saiatuko gara: ariketa honen helburua zaborren arazoaz kontzientzia hartzea da, ez besterik.

- **"Mundu zabalean".** Munduko txoko guztietan du eragina kontsumismoak eta zaborren kudeaketa txarrak. Horren adibide dira honako albiste hauek: [Plastikozko uhartea](#) eta [Ghana: hilerri digitala](#). Ikasleen lana horrelako gehiago topatzea izango da, binaka, eta horien inguruko azalpena ematea beraien buruak bideoz grabatuta (bideokamera edo sakelakoa), telebistako aurkezleak bailiran. Bideoak gelan ikusiko dira, eta, hala, denen artean albistegi bat sortuko dute.
- **"Gaur egunera begira".** Ikasleak lau bat laguneko taldetan bilduko dira. Ondoren, alde batetik etxean dituzten produktuen ontzietan zein dendetakoei argazkiak aterako dizkiete, eta baita botata aurkitutako zaborrari ere. Behin argazkiak bilduta, talde bakoitzak bere panela sortu beharko du argazki horiekin eta, amaieran, erakusketa bat antolatuko dute ikastetxean. Horretarako, ikasleek gai horri buruzko azalpenak prestatu beharko dituzte.

- Nola daude bilduta erosten ditugun produktuak? Ematen al diogu garrantzirik horri erosterakoan?

- Zenbat plastiko sortzen da hilabeteetan etxe batean?

- Zerbaít aldatzeko premiarik ba al dago? Zer?

- Konpromisorik hartzeko prest al zaudete horren aurrean? Zer?

- **"Zu zeu elkarrizketatzaile".** Etxeko edo inguruko adinekoei galdetu, eta beraien bizimodua nolakoa zen jakin. Elkarrizketa labur bat egin, binaka. Ahal dela, bideoan grabatu. Galdetegia gelan prestatuko dute, guztiek batera. Zer eta nola aprobeztatzen zuten galdetu (arropa, janaria, objektuak...) eta zaborren gaia nola kudeatzen zuten (erre, berrerabili, konpostatu...). Jasotako testigantza gelakideei erakutsiko die bikote bakoitzak, elkarrizketaturi buruzko datuak emanez (nor den, nondik ezagutzen duten, zergatik elkarrizketatu duten...). Aukera bat: ondoren, grabatutako zati onenekin bideo muntaia egitea

elkarlanean, ikastetxean eta herrian zabaltzeko. Adibidez [Movie Maker](#) programarekin (nola erabili erakutsiko zaie).

- **"Jolastex".** Bideoan aipatzen da lehen dena aprobetxatzen zela, eta gauza askori bigarren erabilera bat ematen zitzaie. Gainera, era horretan ez omen zen zaborrik sortzen. Bada, taldeka jarrita eta sormena erabiliz, honako material hauek gelara ekarri, eta funtzionala den zerbait egingo dute eurekin:

- Jogurt potoak



- Komuneko paperaren kartoizko hodiak




- Freskagarri latak



5. Ekoizpena partekatzea.

12 Gaia: **Gutxirekin pozik.** Garapen iraunkorra.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/gutxirekin-pozik>



ahotsak IKASGELAN

ahotsak.eus

Honi buruz Gaiak Bideoteka

Gutxirekin pozik

Dirua versus zorion gutxirekin pozik bizi daitekeela kontatzen dute bideoan agertzen direnek, eta gauza asko izateak ondorio kaltegarriak ere izan ditzakeela. daukagunari baliorik ez ematea, beste jolas batzuk alboratzea...

Gutxirekin Pozik

Mailak: DBH

Proiektua: Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan

Ikasgaiak: Herritartasunerako Herri Antza

Bitoriana Artola
Lezo, 1918

Proposamen pedagogikoa:

Bideoa ikusi aurretik

1. Girotze-jolasa. Uharte galdua. Galdera egingo diegu ikasleei:

-Ezer ez dagoen uharte batera, zer eramango zenukete?

Ikasle gehienek objektuak esango dituztela suposatuz, hausnarketara bideratu.

-Konturatu zarete ia guztiak gauza materialak direla?

2. Ideia-jasa egingo da. Ondoren dagoen galderaren inguruan burura etortzen zaizkien ideia guztiak esan beharko dituzte ikasleek (ez da inongo ideiarik baztertuko, baina gutxieneko gidaritz bat egon beharko da). Helburua gaiaren inguruko ahalik eta ideia gehien ateratzea izango da, aurre-ezagutzei tiraka.

- Zer datorkizue burura "gutxiarekin pozik" entzuten duzuenean?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu.

Bideoa ikusi ondoren

1. Gela osoarentzako galdera batzuk egin daitezke:

- Zertaz hitz egiten dute bideoan?
- Zer esan nahi du Martínak "sartu itten gea, behar hortan sartu gehiyau" esaten duenean?
- Ados al zaudete "oaingo umiak ez dakite jolasten" horrekín? Zergatik esaten dute hori?
- "Lehen zer gutxikín aise kontent gínen. Horra!", dío Doníbane Lohízuneko Hélének. Zer adierazi nahi du?*
- Bideoan zehar "dana dekíe" aipatzen du Mañariako Petrak, baína hala al da benetan?
- Zoriontasuna zerke sortzen du? Eta lehen zerke sortzen zien?
- Bideoan aipatzen da lehengo bizimodua ona eta lasaía zela. Nolakoa da oraíngoá, zuen ustez?

2. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezeko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- **"Jolasten".** Bideoan aipatzen da lehengo umeek sormen handiagoa zutela, eta jolasteko erabiltzen zituzten gauzak beraiek egiten omen zituztela. Gainera, era horretan ez omen zen zaborrik sortzen. Bada, taldeka jarrita, sormena erabili, eta material erreziklatuarekin jostailuak edo gailuak egin. Funtzionalak izan beharko dute, eta egin dutena zergatik eta zertarako egin duten azaldu (aukera bat: gero ikastetxeko haur txikiagoekin jolasak martxan jartzea).
- **"Emax iritzia".** Idatzi hausnarketa bat, iritzi-artikulu bat, zoriontasunaren inguruan. Hona hemen adibide bat: [Aurrerapenaren kontra](#). Banaka egiteko lana

da. Testuan zehar hitz hauek erabili (gutxienez 4), eta ondoren ahoz gora irakurriko dute:

- | | |
|------------------------|----------------------|
| · <i>Kontentu</i> | · <i>Konfiantza</i> |
| · <i>Presa</i> | · <i>Erosotasuna</i> |
| · <i>Dirua</i> | · <i>Ilusioa</i> |
| · <i>Aurrerapenak</i> | · <i>Poza</i> |
| · <i>Inbidia</i> | · <i>Bizimodua</i> |
| · <i>Konformidatea</i> | · <i>Estresa</i> |



• *"Ika-mika"*. Eztabaida bat egitea, lehengo bizimodua eta oraingoa konparatuz. Ikasleak bi taldetan banatu daitezke: alde batetik lehengo bizimoduaren aldekoak eta bestetik, oraingoaren aldekoak (kontsumoaren onurak eta desabantailak). Ikasleei eztabaida formalen ezaugarriak eta erabiltzen diren formulak eta testu antolatzaileak zein diren azaltzea komeni da, erabil ditzaten (irakaslearentzat lagungarri gerta daitezke: [sekuentzia didaktiko hau](#), bereziki 84-85 orrialdeak, eta [beste adibide hau](#)).

• *"Gaur egunera begira"*. Garapen iraunkorra eta gehiegizko kontsumoarekin lotutako egungo gure inguruko gertaerak aztertu, eta albiste bat edo gehiago aukeratu. Banaka edo binaka egin daiteke. (Adibideak: ["Erosteke modua aldatu da"](#), [Gernikako arbolaren perfumea](#) eta [txakurren hotela](#)). Gertaeraren laburpena egingo dute, eta ahoz azaldu eta iritzia eman, gela osoaren aurrean (aurkezpen txiki bat prestatu dezakete, adibidez [prezi](#) programarekin; erabiltzen ez badakite, ereduak erakutsiko zaizkie).

• *"Historia egiten"*. Gehiegizko kontsumoari buruzko ikus-entzunezko bat ikus daiteke gelan, planetarentzat dituen ondorioei lotutakoa (adibideak: ['Erosi, bota, erosi'](#) eta ['Age of stupid'](#)). Ondoren, gai horri buruz ikertuko dute ikasleek, talde txikietan informazio gehiago bilatu, eta talde bakoitzak horma-irudi bat prestatuko du (marrazkiak, argazkiak, Collagea... irudimena erabiliz), eta ondoren gelakideei egin dutena azaldu.

3. Ekoizpena partekatzea.

ESPAZIOEN ANTOLAKETA

Proposamen pedagogikoak gelan landuko dira, baina informazioa lortzeko edo ekoizpenak prestatzeko egokia izan daiteke IKTrako baliabideak dituen gela, edo liburutegia erabiltzea. Bestalde, ikastetxetik kanpo informazioa biltzea ere bultzatuko da, gertuko errealitatea ezagutzeko: etxean, kalean... Ahozkotasunean oinarritutako proiektua den heinean, inguru hurbilean testigantzak biltzeari garrantzia emango zaio.

66



Espazioa talde-lanerako era egokian antolatuko da betiere (talde txikiak edo handiak diren, horren arabera). Ikasle guztiek parte hartzeko aukera bera dutela ziurtatuko da, eta espazioaren antolaketa ez dela horretarako oztopo. Espazioari dagokionez aintzat hartuko da irakaslearen eta ikasleen arteko harremana ere, irakaslea fisikoki ikasleen gainetik ez jartzeko.

DENBORALIZAZIOA

Irakasleak erabakiko du zenbat denbora eskaini lanketari. Izan ere, irakasleak erabakiko du zein jarduera egingo dituen ikasleekin, eta zenbat denbora beharko duen horretarako.

Irakasleak jarduera denak bere egitea erabakitzen baldin badu, orduan proposamen pedagogikoak Sekuentzia Didaktiko bihur daitezke. Fitxa Pedagogiko denak ez dira berdinak, eta lanketarako denbora ere diferentea izan daiteke, baina jarduera denak aurrera eramanez gero, lanketa 4-6 ordukoa izango dela aurreikusten dugu:



- 1. saioa.* Bideoa ikusi aurretik egingo diren jarduerak. Bideoa ikustea.
- 2. saioa.* Bideoa ikusi ondorengo jarduera batzuk (1. saioan ere hasi gaitzke jarduerekin).
- 3. saioa.* Bideoa ikusi ondorengo beste jarduera batzuk.
- 4. saioa.* Ikerketa eta informazio bilketa, ekoizpena gauzatzeko (kasuan kasu, saio hau ikastetxetik kanpo egin daiteke).
- 5. saioa.* Ekoizpena partekatu eta grabatu.
- 6. saioa.* Grabazioak ikusi eta ebaluazioa egin.

Baliabide teknikoak

- IKTak. Eskola 2.0 egitasmoko baliabideak eskura izango ditugu: arbel digitala gela osorako eta ordenagailu eramangarriak ikasle guztientzat.
- Bideoak pantaila handian ikusiko dira. Pantaila, ordenagailua, Interneterako konexioa, proiektorea eta bozgorailuak beharko dira. Arazo teknikoak izanez gero, posible izango da ikasleek beraien ordenagailu eramangarrietan ikustea bideoa. Aurikularrak beharko dituzte.
- Informazioa bilatzeko Internet erabiliko dugu. Konexioa izatea ezinbestekoa izango da.
- Informazioa jasotzeko eta materiala ekoizteko tabletak, bideokamerak, ordenagailuak etab. erabiliko dira.

- Gaiak aurkezteko, dokumentuak sortzeko eta ekoizpenetarako sarean aurki ditzakegun aplikazio libreak erabiliko ditugu (Google Drive). Zenbaitetan bideoak eta ekoizpenak partekatzeko proiektorea, bozgorailuak eta ordenagailua beharko dira.

Bibliografia

- Amonarriz, Kike (2002). *Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran*. Ikastolen Elkartea: IX. Jardunaldi Pedagogikoak: 417-465
 - Askoren artean (2013). *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Eusko Jaurlaritzza. Gasteiz
 - Barquín, Amelia (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Emakunde. Gasteiz
 - Dolz, J., Schneuwly (1997). *Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona. Textos de didáctica de la lengua y literatura*. 11, 77-98.
 - Euskararen Aholku Batzordea (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritzza. Gasteiz.
 - Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2007). *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza Curriculumean*. 218. alearen gehigarria.
 - Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila (1993). [Euskal Autonomi Elkarteko emakumeen oinarrizko eskubideen gidaliburua](#). Emakunde, Gasteiz
 - Erriondo L., Bilbao B., Garagorri X., Idiazabal I., Iztueta P (2003). *Euskal Dimentsioa Curriculumean. Oinarrizko irizpideak, norabideak eta lorbideak*. Euskal Eskola Publikoa Gaur bihar. Gasteiz
 - Ibarra, Orreaga (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. N.U.P. Iruñea
 - Kagan, S. (1999). *Cooperative Learning. San Clemente: Resources for Teachers*.
 - Lledó, Eulalia (2008). *Hezkuntzan erabiltzeko hizkuntza-jarraibideak*. Emakunde. Gasteiz
 - Pavón Amaia, Zuberogoitia Aitor (2011). *Leintz bailarako nerabeak eta ikus-entzunezko edukien kontsumoa, digitalizazioaren garaian*. Uztaro 78, 31-49 orr. Bilbo
 - Rincón, Ana (1997). [Ikastetxearen hezkidetzaren eredu egiteko gida. I tomoa](#) Emakunde. Gasteiz
 - Rincón, Ana (1997). [Ikastetxearen hezkuntza eta curriculum proiektua egiteko baliabideak. II tomoa](#) Emakunde. Gasteiz
 - Rincón, Ana (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko konbentzioa eta gomendioak*. Emakunde. Gasteiz
 - Sanchez Carrion, J.M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Lizarra.
 - Zalbide, Mikel (2002). *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?*. Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak. Ikastolen Elkartea. Donostia
 - Zuazo, Koldo (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Elkarlanean. Donostia
- HEZIBERRI 2020: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/>



Ikasmaterial honek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren onespena dauka
2016/09/21